

# GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN TXOSTENAK EGITEKO GIDALIBURUA



**EMAKUNDE**

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Jauriaritzako Erakunde Autonomiaduna  
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

GIDALIBURUA



EMAKUNDE  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDE  
GASTEIZ 2013

**G**ENEROAREN ARABERAKO  
ERAGINAREN TXOSTENAK  
EGITEKO GIDALIBURUA

**IZENBURUA:** "Generoaren araberako eraginaren txostenak egiteko gidaliburua"

**EGILEA:** Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea

**AUTOREA:** Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea, Eusko Jaurlaritza eta Helena Ortiz de Lejarazu-Red Kuorum

**MAKETATZAILEA ETA**

**KOORDINATZAILEA:** Ana Rincón

**DATA:** 2013ko abendua

**DESKRIBATZAILEAK:** Berdintasuna, genero eragina, genero ikuspegia, txostenak, autonomi administrazioa, gidak

**DISEINU GRAFIKOA:** Arrin. Komunikazioa eta Diseinua

# AURKIBIDEA

AURKEZPENA .....	7
SARRERA .....	11
1. AZKEN HELBURUA: BEREIZKERIATIK BERDINTASUNERA .....	15
1.1. Nola sortzen da bereizkeria? .....	17
1.2. Baina.... zer ulertzen dugu emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz ari garenean? .....	22
2. NOLA LORTZEN DA BERDINTASUNA? ESTRATEGIAK .....	25
2.1. Ekintza positiboak .....	27
2.2. Generoaren ikuspegia sistematikoki sartzea (Genero <i>Mainstreaminga</i> ) .....	29
3. KONTZEPTU-ESPARRUA ETA ABIARAZTEAREN AURREKARIAK .....	31
3.1. Generoaren araberako eraginaren ebaluazioaren kontzeptua .....	33
3.2. Generoaren araberako eraginaren ebaluazioaren jatorria .....	35
3.3. Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa abiaraztearen aurrekariak .....	38
4. GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN EBALUAZIOA EAE-N .....	41
4.1. Aplikazio-eremua .....	43
4.2. Eusko Jaurlaritzaren jarraibideak generoaren araberako eraginaren aurreko ebaluazioa egiteko .....	45

5. GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN TXOSTENA .....	51
5.1. Zer da eta zertarako balio du generoaren araberako eraginaren txostena egiteak? .....	53
5.2. Zer arau eta administrazio-egintzetan egin behar da edo ez da egin behar txostena? .....	55
5.3. Nork egin behar ditu generoaren araberako eraginaren txostenak? .....	60
5.4. Noiz egin behar dira generoaren araberako eraginaren txostenak? .....	62
5.5. Nola egiten dira generoaren araberako eraginaren txostenak? .....	64
6. SEKTORE-MATERIALAK .....	77
6.1. Kirola .....	79
6.2. Landa-Garapena eta Nekazaritza .....	79
6.3. Herritarren Segurtasuna .....	79
6.4. Ekintzailtza eta enpresa txiki eta ertainak (ETE) .....	79
6.5. Garraioa eta mugikortasuna .....	79
6.6. Ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza (I+D+I) .....	79
6.7. Informazioaren gizartea .....	79
7. KONTSULTARAKO MATERIALAK .....	81
7.1. Alderdi juridikoak .....	83
7.2. Ohiko galderak .....	83
7.3. Adibide praktikoak .....	83
7.4. Txantiloak .....	83
7.5. Glosarioa .....	83
8. ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAK .....	85



**A**URKEZPENA







Arauk egitea administrazio publikoen jarduren elementu nagusietako bat da, ia guztia baita arautzekoa. Hori dela eta, botereen eta administrazio publikoen zereginetan genero-ikuspegia behar bezala txertatzeko, funtsezkoa da eremu horretan esku hartzea.

Horren haritik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 18. artikuluan, adierazten da EAEko administrazio publikoek arauak egiterakoan eta aplikatzerakoan oso gogoan izan behar dutela emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko helburua; 19. artikulutik 21. artikulura, berriz, hori nola egin ezartzen da. Ildo horri jarraituz, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana dago, Jaurlaritzaren Kontseiluak onartua, zeinak honako hau ezartzen duen helburuen artean: genero eraginaren alde aurreko ebaluazioa aintzat hartzen duten arauen ehuneko eta berdintasuna sustatzeko neurriak dituzten arauen ehunekoa handitzea (G8 helburua).

Testuinguru horretan, nahi genuke gidaliburu hau tresna baliagarria izatea, dagokien profesionalei agindu horiek betetzen laguntzeko. Horretarako, oinarrizko informazioa ematen die, arauak generoaren arabera duten eragina alde aurretik nola ebaluatu eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak arauetan nola sartu azaltzeko. Gidaliburuaren osagarri, beste material eta baliabide praktiko batzuk ere egin dira, eta Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearen web-orrialdean kontsultatu daitezke.

Zorionak eta eskerrak eman nahi dizkiet gidaliburu hau egiten lagundu duten pertsona eta erakunde guztiei, eta, bereziki, Emakundeko langileei eta Eusko Jaurlaritzako sailtako administrazio-unitateetako langileei, bai eta Helena Ortíz de Lejarazuri ere (Red Kuorum), emandako laguntza tekniko dela eta.

Uste osoa daukat gidaliburu hau eta gainerako material osagarriak mesedegarri izango direla emakumeen eta gizonen berdintasuna gehiago ager dadin gure botere publikoen jarduran eta araudian, eta horrek, dudarik gabe, jardun publikoa oro har hobetzea ekarriko du.

Miren Izaskun Landaida Larizgoitia.  
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria






**S**ARRERA



Gidaliburu hau material lagungarria da, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, eta genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari buruzko jarraibideek eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriek, Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21ean onetsiek, ezarritakoa betez, genero-eraginari buruzko ebaluazioak egin behar dituzten pertsonentzat.

Material honen xedea da aholku ematea eta hausnarketa bideratzea, informazioaren bidez honako helburu hauek lortzeko:

- Ulertu nola sortzen diren bereizkeriak, lana sexuaren arabera banatzean oinarritutako gizarte-antolaketaren ondorioz.
- Jakin zer lan-estrategia erabili diren politika publikoetan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko.
- Ulertu zertan datzan genero-eraginaren ebaluaziorako tresna, eta, batez ere, nola egi-ten den eragin-txostena.

Erraz irakurtzea eta kontsultatzea bideratzeko, materialak nabigarriak dira, edukien aurkibidetik abiatuta, eta puntu bakoitzaren laburpena zuzenean joateko botoi batzuk dituzte. 

Gidaliburua osatzen da Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundearen web-orrian eskura dauden material eta baliabide praktiko batzuekin. Horiek 6. eta 7. ataletan jasota dauden esteken bitartez eskura daitezke:

- Sektore-materialak
- Alderdi juridikoak
- Ohiko galderak
- Adibide praktikoak
- Txantiloak
- Glosarioa





# 1. **A**ZKEN HELBURUA: BEREIZKERIATIK BERDINTASUNERA





## 1.1. NOLA SORTZEN DA BEREIZKERIA?



Desoreka nola sortzen den ulertzeko, sexu eta genero kontzeptuak ulertu behar dira:

- Sexu kontzeptuak emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun fisiko, anatomiko eta fisiologikoak adierazten ditu, eta ez du ezinbestean jokabidea zehazten.
- Genero kontzeptuak, berriz, gizarte bakoitzean sexu bakoitzarekin lotzen dena adierazten du; hau da: emakume edo gizon izateak gizartean duen esanahia aipatzen du, bai ta bien arteko harremana eta harreman hori gauzatzekoan dauden botere/mendekotasun erlazio desberdinak ere (1).

Horrenbestez, emakumeak erditzea gertakari biologikoa da, baina gizartean ikasten da haurrak jaio ostean emakumeen lana dela ume horiek zaintzea.

Genero kontzeptua 70eko urteetan sortu zuten feminista anglosaxoiek, emakumeen eta gizonen desberdintasun sozialak aztertu eta azaltzeko; desberdintasun biologikoek ez baitute balioko desberdintasun sozial horiek azaltzeko. Horrenbestez, zalantzan jarri nahi zuten emakumeak mende egotea arrazoi biologikoen ondorio izatea.

Gaur egun, antropologia feminista zalantzan jartzen ari da sexua –alderdi biologikoa– emandako zerbait estatikoa eta aldaezina denik, eta “gure gizartean sexu menderatzaile kontzeptuaren eraketak izaera kulturala eta historikoa duela azpimarratzen ari da (...). Beste era batera esanda, desoreka sozialak –generoa– dira diferentzia biologikoak –sexua– modu jakin batean azaltzen dituztenak, eta ez alderantziz, pentsatu ohi den moduan” . Horrek esan nahiko luke “generoaren lehenengo ekintza sexuaren arabera sailkatzea dela” (IZQUIERDO, MJ, 2003). Gainera, generoa ez da ez estatikoa ez unibertsala; izan ere, femeninotzat edo maskulinotzat hartzen duguna aldatu egiten da garaiaren eta ingurune kulturalaren arabera.

(1) OXFAM, 1997.

(2) ESTEBAN, ML. *El estudio de la salud y el género: las ventajas de un enfoque antropológico y feminista*. Salud colectiva. Buenos Aires, 2(1): 9-20, urtarrila-apirila, 2006.

Diferentzia biologikoak desoreka sozial bihurtzearen prozesua sexu-genero sistemaren ondorio da; hau da: "Sexu-diferentzietatik abiatuz gizarteek eraten dituzten jarduera, sinbolo, irudikapen, arau eta balore sozialen multzoen ondorio (DE BARBIERI, 1992)" (3).

Sexu-genero sistema hori patriarkala da, alegia: gizonen emakumeak menderatzea instituzionalizatuta dago sistema horretan. Sistemaren egitura sozioekonomiko eta politikoen, arau eta balioen, eta sozializazio-prozesuen bidez, rolak (zeregin- eta funtzio-multzoa) eta espazioak sexuaren arabera esleitzen dira era asimetrico eta hierarkizatuan. Emakumeei eta gizonen lan eta balio desberdinak ematen zaizkie, bai eta erantzukizun eta betebeharrak desberdinak ere.

Emakumeekin, funtsean, familia zaintzea eta etxeko espaziora mugatutako afektuak lotzen dira; espazio horretan denbora beste pertsonentzat da, ez da baloratzen, eta, horrenbestez, ez da ordaintzen. Gizonekin, berriz, produkzio-esparrua eta parte-hartze soziala eta politikoa lotzen dira; espazio hori publikoa da, denbora baloratu egiten da, jarduera-denbora delako, eta, horrenbestez, ordaindu egiten da. Orobat, gizonen espazio pribatua ere badute, beren denbora eta espazioa, eta hor beren burua hobetu egiten dute espazio publikoan oihartzuna izateko. Emakumeen espazio pribatua, berriz, etxeko esparruarekin nahasten da (MURILLO, S., 1996).


Sistema horrek, beraz, sexuaren araberrako banaketa egiten du, bai espazioan (publikoa, pribatua, etxekoa), bai funtzioetan (produkzio/ugalketa), bai lanean (hierarkikoa). Banaketa hori naturalizatu egiten da; hau da, kausa biologiko eta psikologiko diferentzialen bidez azalduko balitz bezala ikusten eta teorizatzen da (ESTEBAN, ML., 2006).

Sexu bakoitzari, rol jakin batzuek gain, estereotipo jakin batzuk ere lotzen zaizkie. Genero-estereotipoak dira, emakumeen eta gizonen jokabideei eta portaerei buruzko ideia sinpleen multzoa, arrazoiaren kontrolerik kanpo eta kontzientzia kolektiboan oso errotuta dagoena. Horren eraginez, emakumeengan eta gizonengan igurikapen desberdinak jartzen dira, eta nortasunaren eraketa sexuaren arabera mugatzen da. Aldi berean, ezarritako botere-harremanak legitimatzen dituzte, alderdi maskulinoari femeninoari baino balio gehiago ematen zaiolako.

---

(3) DE LA CRUZ, Carmen. Genero ikuspegia garapen proiektu eta programetan barneratzeko gida metodologikoa, Emakunde eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia, Vitoria-Gasteiz, 1998, (21. or.).

Estereotipo garrantzitsuetako batzuk hauek dira:



Estereotipo horiek zenbait esparrutan islatzen dira: hezkuntzan (neskak saiatuagoak dira, esanekoagoak, pasiboagoak...); lanean (emakumeak bigarren mailako langileak dira, arreta-suak, konformistak, ohiko lan errazak egiten dituzte, jarritako soldatarekin konformaerazak dira –normalean soldata osagarria izaten da–...) eta abar.

Horrelako estereotipoek eta emakumeekin eta gizonekin lotutako balioen desberdintasunek eragin handia dute generoaren identitatea eratzerakoan, hau da, generoekin identifikatzeko prozesuan. Agente sozializatzaile nagusiak (familia, eskola, komunikabideak) dira identifikazio hori egiteko bide. Testuinguru sozial eta kultural jakin batean hazten gara, eta bertan ez ditugu ezagutzak bakarrik ikasten, balio-sistema nagusia ere ikasten dugu. Hala, gizarteak emakumeengandik eta gizonengandik zer espero duen ikasten dugu, eta nolakoak izan behar duten bi sexuen arteko harremanek; harreman horiek funtsean asimetrikoak eta hierarkizatuak dira.

Identifikazio-prozesu hori ez da prozesu monolitikoa; izan ere, ez dugu gure burua genero-etako batekin identifikatzen milimetroz milimetro, eta, gauzak sexuaren arabera esleitutako ereduarekin bat ez datozenean, kontraesanak eta ondoeza sortzen dira. Hona arrazoiak: ereduak aldatuz doaz eta gizarte eta testuinguru historiko jakin batean emakume edo gizon izatea modu batera baino gehiagotara uler daiteke. Izan ere, azken hamarkadetan kolokan jarri da eredu historiko patriarkala, alegia, gizona soilik ekonomia-sostenguaren hornitzaile izatea eta emakumea, berriz, eguneroko ugalketa-lanen arduradun bakarra. Aldaketa horiek gorabehera,

sistema patriarkalak ereduak haustea zigortu egiten du, eta, horrela, generoetako batekin identifikatzearen prozesua kontrolatu egiten du; eta, horren ondorioz, botere/mendekotasun harremanak ez dira amaitzen.

Prozesu horrek ondorio ugari ditu. Alde batetik, nortasuna eta autonomiarekin lotutakoak; izan ere, eredu femeninoa gutxiago baloratzearen ondorioz emakumeek beren buruak gutxie-tsi ditzakete, eta, batzuetan, gizonen konfiantza gehiegi har dezakete. Beste alde batetik, autonomia-falta eragiten du bai emakumeengan bai gizonengan. Emakumeen kasuan esparru publikoan (independentzia ekonomikorik edo erabakiak hartzeko aukerarik ez izatea, besteak beste), eta gizonen kasuan etxeko esparruan (zailtasunak izatea beren buruak zaintzeko eta beste pertsonak zaintzeko, edo arrisku-jarduerak hartzea, besteak beste).

“Sistema honek ezarri du emakumeek eta gizonen gizartean posizio berezituak izan behar dituztela eta bien arteko harremanetan desorekak egongo direla. Sexu-genero sistemak historikoki emakumeak bereizi eta marjinatu egin ditu bai alderdi ekonomiko, politiko, sozial eta kulturaletan, bai esparru publikoan eta pribatuan, eta argi desberdindu ditu gizon eta emakumeen eginkizunak; desberdintze horren arabera, gizonen produkzio-alorrean eta emakumeen ugalketa-alorrean jardun behar dute” (4).

Beraz, gizartean postu desberdinak daude, sexu biologikoaren arabera esleitzen direlako pertsonen rola, espazioak, ezaugarriak eta nortasunak; horrek bereizkeria-egoerak sortzen ditu (eskubide, balio, baliabide eta aukera aldetik) eta bi sexuen arteko harremanak antolatzen eta erregulatzen dituen kode konplexua ezartzen du.

Azaltzen saiatu garen moduan, arazoa ez da desberdintasunak daudela (desberdintasuna eta aniztasuna kontuan izan beharreko balio eta kategoria da) desorekak daudela baizik, bai emakumeen eta gizonen baldintzetan bai beren posizioetan.

Genero-harremanetan beste desoreka batzuk nahasten dira, eta hortik bereizkeria anizkoi-tza sortzen da. Hain zuzen ere, hori gertatzen den ala ez ikusteko, kontuan izan behar da emakumeen eta gizonen artean era guztietako pertsonak daudela, eta zenbait faktore horren erakusgarri direla: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritziak, gutxiengoaren nazioko parte izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-joeira edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial (5).

---

(4) DE LA CRUZ, Carmen. *Genero ikuspegia garapen proiektu eta programetan barneratzeko gida metodologikoa*, Emakunde eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia, Vitoria-Gasteiz, 1998, (21. or.).

(5) 4/2005 Legearen 3.1. artikuluan jasota dago, Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunaren 21. artikulua planteatutako definizioa oinarri hartuta.

Horregatik, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak garatzen ditugunean, saiatu behar dugu baldintzetan eta posizioan dauden desberdintasun horiek identifikatzen, botere-harremanetan asimetriak non sortzen diren ikusten, eta, era berean, sistema aldatzeko esku hartzen, baina ez bakarrik emakumeengan (nahiz eta emakumeentzako politika zehatzak ere garatu behar diren beharrezko denean), gizonen eta emakumeen arteko botere/mendekotasun harremanetan baizik. Horrela, bada, esku-hartzeen helburuak harreman horiek aldatzea izan behar du, gizarte osoari mesede egiteko eta gizarte osoa eraldatzeko.

## 1.1. laburpena. Nola sortzen da bereizkeria?

- Sexua eta generoa ez dira gauza bera. Sexua da gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun biologikoa. Generoa, berriz, sexu batekoa edo bestekoa izateari lotutako gizarte-eraikuntza, rolak, estereotipoak eta balioak.
- Sexu-genero sistema da emakumeei zaintza-lana –eremu pribatuan eta ordaindu gabe egiten dena– eta gizonen produktio-lana –ordainduta eta eremu publikoan egiten dena– esleitzen dizkien prozesua.
- Sexu-genero sistemaren ondorioa da emakumeek bereizkeria pairatzen dutela gizartean, eskubide baliabide eta aukerak eskuratzeko zailtasun handiagoak dituztela, eta haien ezaugarri eta ekarpenei balio gutxiago eman zaiela.
- Bestalde, egoera jakin batzuek bereizkeria areagotzen dute, emakume izateaz gain, beste faktore batzuk ageri direnean: adina, arraza, hizkuntza, sexu-joera, edota bereizkeria anizkoitza eragiten duten beste edozein baldintza edo inguruabar.
- Horregatik, politika publikoak egiteko garaian, emakumeen posizio eta baldintza desberdinak identifikatu behar dira, sistema aldatze aldera esku hartzeko eta boterean dauden asimetriak zuzentzeko.

## 1.2. BAINA... ZER ULERTZEN DUGU EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZ ARI GARENEAN?



Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko esku-hartzeaz jarduteko, argi izan behar dugu zer den berdintasuna. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean berdintasunak bi adiera ditu: alde batetik, sexuagatik zuzeneko eta zeharkako bereizkeriarik ez egotea (tratu-berdintasuna); beste alde batetik, emakumeek eta gizonek eskubide guztiak berdintasun-egoeran erabili ahal izatea, eta horren barruan sartzeko da boterea eta baliabide eta onura ekonomiko eta sozialak kontrolatu eta eskuratu ahal izatea (aukera-berdintasuna).

Bestalde, berdintasunak ez du esan nahi tratamendu berbera izan behar dutenik; esan nahi du homologagarria eta baliokidea izan behar duela eskubideak erabiltzerakoan eta baliabideak eta onurak kontrolatu eta eskuratzekoan. Berdintasun-printzipioa ongi aplikatzeak esan nahi du tratamendu berdina ematen zaiela kolektiboetako egoera erreal berdin edo antzekoetan; baina, eragindako kolektiboen hasierako egoera desberdina bada, eta haietakoren bat desabantaila sozialaren egoeran baldin badago, beharrezkoa da bereizitako kolektiboari tratu desberdina ematea, aldeko tratua, hasierako desabantaila-egoera orekatzeko edo arintzeko; hartara, bereizitako kolektiboak lortutako onura abantailazko posizio sozialetik abiatu den kolektiboak lortutakoaren baliokidea izan daiteke.

Definizio horiek "eraginkor bihurtu" behar ditugu esparru zehatz bakoitzerako. Esaterako, lan-esparruan ari bagara esku hartzen, erabaki egin beharko dugu zer eskubide, baliabide eta onura sozial eta ekonomiko dauden jokoan eta zer emaitza espero ditugun. Horretarako, beharrezkoa da aztertzea eta identifikatzea zer arauk eta tresna juridikok ezartzen dituzten, une bakoitzean eta esku-hartzeko esparru bakoitzean, desorekak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko aginduak eta helburuak.

Beste alde batetik, emakumeen eta gizonen berdintasuna egoteko, beharrezkoa da berdintasunezko gizartea lortzea, gizarte bat non pertsona oro libre izango den bere gaitasun pertsonalak garatu eta erabakiak hartzeko, ohiko roletan sexuaren arabera ezartzen dituzten mugak izan gabe; gizarte bat non berdin aintzat hartu, baloratu eta bultzatuko diren emakumeek eta gizonek dituzten portaera, jomuga eta beharrianak (6).

---

(6) 4/2005 Legearen 1. artikuluan jasota dago, Europako Batzordeak generoaren arabera eraginaren ebaluaziorako gidan planteatutako definizioa oinarri hartuta.

## 1.2. laburpena. Baina... zer ulertzen dugu emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz ari garenean?

---

- Berdintasunak dakar bai tratu-berdintasuna (bereizkeriarik ez egotea) bai aukera-berdintasuna (eskubide guztiak berdintasunean erabili ahal izatea, eta horren barruan sartzen da bai boterea bai baliabide eta onura ekonomiko zein sozialak kontrolatu eta eskuratu ahal izatea).
  - Berdintasunak ez dakar tratu berbera, baliabide nahiz onurak eskura berdinean izatea eta boterea zein eskubideak berdinean gauzatzea baizik.
  - Horrenbestez, kolektibo bat hasieran desabantaila-egoeran baldin badago, kolektibo bereizi horri tratu desberdina eman behar zaio.
-







## 2. OLA LORTZEN DA BERDINTASUNA? ESTRATEGIAK



Emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa eta sexu arrazoiengatik eginiko edozein bereizkeria-motaren debekua zenbait lurralde-mailatako arau juridikoetan bilduta daude.

Hala ere, berdintasun legal horrek ez du benetako berdintasuna ekarri, eta horren seinale dira oraindik lan-merkatuan dauden desorekak, edo parte-hartze soziopolitikoan, pobrezian, etxeko lanetan eta zaintza-lanetan; horrez gain, emakumeen aurkako indarkeriak ere jarraitzen du oraindik.

Hori dela eta, estrategiak garatu beharra dago berdintasuna benetakoa izan dadin beharrezko baldintzak sortzeko. Gaur egun nazioartean uste da horretarako estrategia egokienak honako hauek direla: ekintza positiboak eta generoaren ikuspegia sartzea.

## 2.1. EKINTZA POSITIBOAK




4/2005 Legearen arabera, ekintza positiboaren neurriak espezifikoak eta aldi baterakoak dira; eta haien helburua da sexuaren araberako izatezko desorekak ezabatzea edo gutxitzea bizitzako esparru guztietan.

Lester Thurowren metaforaren bidez, errazago uler daiteke ekintza positiboaren filosofia: "Imajina dezagun lasterketa bat; lasterketa horretan lasterkari batzuei zama astuna jarri zaie talde jakin bateko kide direlako. Handicap horren ondorioz, zama daramaten lasterkariak, batez beste, zamarik ez daramaten lasterkariak baino atzerago joango dira. Orain imajinatu norbaitek makilatxo magikoa astindu eta zamak desagertu egiten direla lasterkari guztien bizkarretatik. Bi lasterkari-taldeek gaitasun berdina baldin badute, bien arteko desberdintasuna ez da gehiago handituko, baina aurrez bereizkeria jasan dutenak inoiz ez dira besteen parera iritsiko. Seme-alabei errelebua pasatzeko aukera egonez gero ere, lasterketa ez litzateke berdinduko belaunaldiak pasa arren. Lasterketa garbia izateko, neurri hauetakoren bat hartu beharko litzateke: pertsona guztiak gelditzera eta berriz ere irteerako marrantik hastera behartu, zamarik ez zeramatenak zamak eramatera behartu, batez bestekoan desberdintasunak desagertu arte, edo aurrez desabantailak jasan dituztenentzako neurri bereziak jarri, bi taldeak parekatu arte. Azkeneko aukera hori da, hain zuzen, ekintza positiboa".

Hona hemen ekintza positiboaren adibide batzuk: emakumeei lehentasuna ematea ordezkari gutxi dituzten postuetan, emakumeei (edo gizonei) zuzendutako ikastaro espezifikoak egitea, edo emakumeen parte-hartzea erregulatzeko kuota-sistemak ezartzea.

Hala ere, neurri espezifikoak martxan jartzeko beharrezkoa da beste estrategia batzuekin osatzea; izan ere, bakarrik ezin dute nahi den emaitza lortu, zenbait arrazoi direla-eta (Europako Kontseiluko Genero mainstreamingeko espezialisten taldeak identifikatu ditu, 1995):

Hori dela eta, Emakumeen Munduko IV. Konferentzian (Beijing, 1995) generoaren ikuspegi sartzeko estrategia berariaz onartu zenetik, estrategia hori planteamendu osagarri gisa gehitu zaie neurri espezifikoiei, eta orain estrategia bikoitzarekin egiten da lan: ekintza positiboak / genero-mainstreaminga.



## 2.1. laburpena. Ekintza positiboak

- Ekintza positiboen neurriak espezifikoak eta aldi baterakoak dira; eta haien helburua da sexuaren arabera izatezko desorekak ezabatzea edo gutxitzea bizitzako esparru guztietan.
- Hona hemen ekintza positiboen adibide batzuk: emakumeei lehentasuna ematea ordezkari gutxi dituzten postuetan, emakumeei (edo gizonei) zuzendutako ikastaro espezifikoak egitea, edo emakumeen parte-hartzea erregulatzeko kuota-sistemak ezartzea.


## 2.2. GENEROAREN IKUSPEGIA SISTEMATIKOKI SARTZEA (GENERO-MAINSTREAMINGA)



4/2005 Legean honela deskribatzen da generoaren ikuspegia sartzea: “Emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduera zehatzak txertatzea”.

Zentzu horretan, Europako Kontseiluko emakumezko aholkulari espezialisten taldeak honako hau adierazten du: “Genero-mainstreaminga prozesu politikoen antolaketa (berrantolaketak), hobekuntza, garapena eta ebaluazioa da, eta, beraz, neurri politikoak hartu ohi dituzten eragileek genero-berdintasunaren ikuspegia sartu behar dute politika guztietan, maila guztietan eta fase guztietan” .

Estrategia hori ezartzeko ezinbestekoa da:



(7) EUROPAKO KONTSEILUA: Mainstreaming de género, Marco conceptual, metodología y presentación de “buenas prácticas”. Informe final de las actividades del Grupo de especialistas en mainstreaming (EG-S-MS) (gaztelaniazko eta ingelesezko bertsioa). Emakumearen Institutua, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa, dokumentu-seriea, 28. zenbakia. Madril, 1999 (26. or.).

Ikusi dezakegunez, beharretako bat da tresna egokiak garatzea eta erabiltzea.

Tresna eta teknika horiek honela sailkatu daitezke:

- Azterketarako tresnak eta teknikak (errealitatea aztertzen eta informazioa jaso ostean erabakiak hartzen laguntzen dute).
- Hezkuntzarako edo prestakuntzarako tresnak eta teknikak (politika espezifiko edo sektorial bakoitzak genero-harremanekin zer lotura duen ulertzeko).
- Gai politiko jakin batek eragindakoei kontsultatzeko eta haien parte-hartzea izateko tresnak eta teknikak (haien interesak eta beharrak kontuan izateko).

Genero Eraginaren Ebaluazioa, hain zuzen, azterketarako teknika da.

## **2.2. laburpena. Genero-ikuspegia sistematikoki sartzea (genero-mainstreaminga)**

- Generoaren ikuspegia (mainstreaming) sartzea da emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoa aintzat hartzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, berdintasuna sustatzeko helburu eta jarduera zehatzak txertatzea.
- Generoaren ikuspegi hori ezartzeko ezinbestekoa da konpromiso politiko sendoa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako berariazko politikak indartzea, sexuaren arabera bereizitako estatistikak eta tresna egokiak eskura izatea, genero-harremanak eta Administrazioa eza-gutzea, finantza-baliabide eta baliabide pertsonal nahikoak izatea, emakumeen parte-hartzea bultzatzea, eta instituzio nahiz erakundeetako egitura eta prozesuak aldatzea.



### 3. **K**ONTZEPTU-ESPARRUA ETA ABIARAZTEAREN AURREKARIAK





### 3.1. GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN EBALUAZIOAREN KONTZEPTUA



Generoaren ikuspegia sistematikoki sartzeko estrategia gauzatzeko (genero mainstreaminga) tresna ugari garatu dira, eta genero-eraginaren ebaluazioa (GEE), hain zuzen, azterketarako tresna horietako bat da.

GEEren helburua da agerian jartzea politika publikoak antolatzeko erabiltzen diren arauak ez direla neutroak, generoari erreparatuta, eta eragin desberdina izan dezaketela emakumeen eta gizonen artean, ondorio hori aurreikusi gabe eta nahi gabe eragindakoa izan arren. Oro har, arauak neutrotzat jo ohi dira, generoari dagokionez, herritar guztien onura helburu hartuta diseinatu direlako, eta, horrenbestez, berdinak direlako pertsona guztientzat, emakumeen eta gizonen artean berezi gabe.

Baina, desberdintasun-egoeratik abiatzen denari tratu berdina emateak, praktikan, desberdintasunak betikotzea dakar; eta horixe da, hain zuzen, emakumeen eta gizonen posizio ekonomiko, politiko eta sozialetan dauden genero-desberdintasunak aintzat hartzen ez direnean gertatzen dena. Horregatik, generoari dagokionez, herritarrak oro har aintzat hartuta pentsatutako politikak ez dira neutroak izaten, itsuak baizik. Generoarekiko itsutasun horren arrazoia da, neurri batean, zaila dela arautze-bidean dagoen arau horren atzean dauden pertsonak eta abian jartzean eragina izango dutenak "ikustea".



Ildo horretan, GEEK proposatzen du pertsonak esku-hartzearen gunean kokatzea, emakumeen eta gizonen premia eta interes desberdinak ezagutzea, baliabideak eskura izateari eta kontro-

latzeari dagokionez dauden genero-desberdintasunak identifikatzea, sexuaren araberako rolen eta estereotipoen eragina aintzat hartzea, eta gerta daitezkeen eragin desberdinak aurreikustea, horren arabera jarduteko eta pertsona guztientzat ekitatezkoak eta baliokideak izango diren emaitzak bermatzeko, eta, horrenbestez, arauen kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko.

GEEren erantzukizuna botere publikoena da, haiei baitagokie emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea eta lehendik dauden desberdintasunak orekatzeko neurriak abian jartzea bermatzea.

Hortaz, berdintasuna lortzeko ezinbestekoa da konpromiso politiko sendo eta aktiboa, araugintzari dagokionez arauetan berariaz agertu behar duena, berdintasunaren alorreko helburu espezifikoak agerian jartzearen eta izendatzearen bidez, eta lehendik dauden desberdintasunak orekatzea eta desberdintasun berrien sorrera eragozteko xede duten neurri zehatzak garatzearen bidez.

### **3.1. laburpena. Generoaren araberako eraginaren ebaluazioaren kontzeptua**

- GEEren helburua da agerian jartzea politika publikoak antolatzeko erabiltzen diren arauak ez direla neutroak, generoari dagokionez, eta eragin desberdina izan dezaketela emakumeen eta gizonen artean, ondorio hori aurreikusi gabea izan arren. GEEren xedea da ebaluatzea emakumeen eta gizonen errealitate desberdinak zenbateraino aintzat hartzen diren arau bat egiteko garaian eta arau horretan bereizkeria desagerrarazteko neurriak txertatzeko garaian.
- Herritar guztien onurari, oro har, erreparatuta diseinatutako arauak, posizio ekonomiko, politiko eta sozialean dauden desberdintasunak kontuan hartu gabe, ezin dira generoaren ikuspegitik neutrotzat hartu, itsutzat baizik.
- GEEren ardura botere publikoen gain dago, eta, bereziki, araua egiteko prozesuan parte hartzen duten erakundeen gain.
- Berdintasuna lortzeko ezinbestekoa da konpromiso politikoa araudian esplizituki agertzea, berdintasunaren helburua agerian jartzea eta aipatzea, eta berdintasun hori lortzeko neurri osagarriak garatzea.

## 3.2. GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN EBALUAZIOAREN JATORRIA



Generoaren araberako eraginaren ebaluazioaren jatorria ingurumenaren sektoreari lotuta dago. Mieke Verlook eta Conny Roggebandek ingurumen-eraginaren ebaluaziorako tresna bat egokitu zuten estreinakoz 1994an, generoaren alorrean erabiltzeko, Berdintasunerako Holandako Dibisioak eskatuta.

Generoaren araberako eraginaren ebaluaziorako jarraibideak ezartzeko aintzat hartu zuten kontzeptu-esparrua da desorekaren oinarrian egitura batzuk daudela, bai eta desberdintasun hori sendotzen duten mekanismo batzuk ere.

**Desorekaren azpian dauden oinarrizko egiturak** antolaketa sozioekonomikoari dagozkionak dira, batez ere sexuaren araberako lan-banaketaren, bizitza pribatuaren antolaketaren eta antolaketa soziopolitikoaren bidez:

- **Sexuaren araberako lan-banaketak** adierazten du gizonen eta emakumeen presentzia desorekatua dagoela ugalketaren (seme-alabak zaintzea) eta produkzioaren (lan ordaindua) gizarte-esparruetan. Ugalketa-lanak emakumeek egiten dituzte gehienbat, eta produkzio-lanak, berriz, gizonek. Gainera, emakumeak lan ordainduan sartzen direnean, jarduera eta sektore jakin batzuetan biltzen dira nagusiki (bereizketa horizontala) eta postu eta kategoria jakin batzuetan (bereizketa bertikala), bi kasuetan ere gutxi ordainduta daudenetan, eskuarki. Horrek emakumeentzat dituen ondorioak hauek dira: norberaren baliabide ekonomikorik ez izatea, gizarte-babesik ez izatea, erabakiak hartzeko postuetan ez egotea, soldaten arteko desberdintasunak, lan guztia batuta gehiegizko karga, aisiarako denbora gutxi... eta horrek guztiak eragina du emakumeen osasunean eta bizi-kalitatean, oro har.
- **Bizitza pribatuaren antolaketak** adierazten du nola antolatzen den bizikidetzak, nola eta norekin bizi diren pertsonak, eta nola bideratzen diren ugalketa eta sexualitatea. Gizartea antolatzen da heterosexualitatea eta sexuen arteko osagarritasuna oinarri hartuta. Ezkontzak gizonen eta emakumeen betebeharrak eta eskubideak ezartzen ditu bikoteen barruan, eta, horrenbestez, funtzionatzeko arauak eta ohiturak finkatzen dira: nork zaintzen du, nork hartzen ditu erabakiak, nola banatzen dira baliabideak... Horrek dependentzia-egoerak sor ditzake emozioen eta ekonomiaren alorrean -eta sortu ere sortzen ditu- eta, azken finean, autonomia-falta eragiten du.
- **Antolaketa soziopolitikoak** adierazten du, batez ere, herritartasunari lotutako eskubideak gauzatzea, oraindik ere irauten duten desoreken ondorioz, emakumeek eta gizonek ez baitituzte berdin gauzatzen eskubide horiek. Izan ere, eskubide berdintasuna

formalki onartuta badago ere, errealitatean eskubide horiek erabiltzean desorekak daude. Adibidez: askatasuna eta jabetza izateko, aukeratuak izateko eta aukeratzeko, eta gizarte-eskubideak izateko eskubidea dute emakumeek eta gizonak. Hala ere, emakumeak ezin dira askatasun berarekin ibili hirietan eta herrietan, jabetzaren banaketan oraindik ere desoreka handiak daude gizonen eta emakumeen artean, emakumeen parte-hartze soziopolitiko txikiagoa da, eta gizarte eskubideak eskuratzeko mugak dituzte oraindik; izan ere, gizarte-eskubideak, hein handi batean, lan merkatuan parte hartuz lortzen dira, eta parte-hartze horretan desoreka handiak daude oraindik ere gizonen eta emakumeen artean.

**Genero-desorekak sortzen eta berregiten dituzten mekanismoak** -eta, aldi berean, desoreka horiei aurre egiteko lagungarriak izan daitezkeen mekanismoak- dira baliabideen banaketa eta baliabide horiek eskura izateko aukera, eta genero-arauak egotea eta aplikatzea:

- **Baliabide material eta ez-materialen jabe izatea**, eta, horrenbestez, baliabide horiek eskura izatea, eta haien banaketa, funtsezkoak dira pertsona bakoitzaren posiziorako. Baliabide nahikoak ez izateak posizio ahulagoa, botere gutxiago eta erabakiak hartzeko gaitasun urriagoa dakartza, emakumeen eta desabantaila-egoeran dauden beste talde batzuen kasuan sarritan gertatzen den bezala.
- **Genero-arauek** (formalak, informalak edota inkontzienteak ere izan daitezke) mugatzen dute nolakoak diren eta nola jokatu behar duten gizonak eta emakumeak; hau da, maskulinitatearen eta feminitatearen oinarriko balioetat hartzen ditugunak definitzen dituzte. Egunerokoan, pertsonak arau batzuen arabera jokatu behar dute; arau horiek gainerakoekin portaera ebaluatzeko ere erabiltzen dira, eta hezkuntzaren eta esperientziaren bitartez barneratzen dira. Arau horiek dira, hain zuzen, sexuaren arabera rol bereizien, haien berregite eta transmisioaren, familia-harreman patriarkalen eta estereotipo sexisten euskarri.
- Amaitzeko, Verlook gaineratzen du -eta Marcela Lagarderekin bat dator- **emakumeen aurkako indarkeria legitimatzea** dela desoreka mantentzea eta berregitea eragiten duen beste mekanismo bat.

Genero-eraginaren ebaluazio bat egiteko garaian, planteatu behar da sexuaren arabera lan-banaketak, bizitza pribatuaren antolaketa, antolaketa soziopolitikoak, baliabideen banaketak eta baliabide horiek eskura izateak, eta genero-arauak egoteak eta aplikatzeak nolako eragina duten emakumeen eta gizonen egoera desorekatuetan, eta ebaluazioaren helburu diren jarduerak eragiten ote duten desoreka horiek areagotzea, betikotzea edota murriztea.

Bestalde, genero-eraginak positiboak edo negatiboak izango diren ebaluatzeko, aintzat hartu behar da emakumeen eta gizonen autonomia (hau da, emakumeek eta gizonak norberaren bizitzari buruzko erabakiak hartzeko aukera izatea) sustatzen ote duten, eta eskubide-ber-

dintasuna eta izatezko berdintasuna (hau da, zuzeneko edo zeharkako bereizkeriarik ez egotea, ez eta haren ondorioz ere) bultzatzen ote duten.

### **3.2. laburpena. Generoaren araberako eraginaren ebaluazioaren jatorria**

---

- Verlook eta Roggebandek garatu zituzten estreinakoz 1994an generoaren araberako eraginaren ebaluaziorako jarraibideak, ingurumen-eragina ebaluatzeko tresna bat egokituta.
  - Oinarrizko egitura hauek dira desorekaren euskarri: sexuaren araberako lan-banaketa, bizitza pribatuaren antolaketa (nola antolatzen da bizikidetzan, nola eta norekin bizi dira pertsonak, ugalketa eta sexualitatea) eta antolaketa soziopolitikoak, hau da, herritarren eskubideak gauzatzea edo ez gauzatzea.
  - Desorekak sortzen eta berregiten dituzten mekanismoak hauek dira: emakumeek baliabide material eta ez-material gutxiago dituzte eta genero-arau desorekatuak daude, sexuaren araberako rolak eta estereotipo sexistak betiketzea eragiten dutenak, eta emakumeen aurkako indarkeria legitimatzen da.
  - Generoaren araberako eraginaren ebaluazio bat egiteko garaian, planteatu behar da arauak nola eragiten duen emakumeen eta gizoneen egoera desorekatua sortzen duten faktore horietan, eta diseinatutako jarduerak egoera hori aldatzeko lagungarriak ote diren.
-

### 3.3. GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN EBALUAZIOA ABIARAZTEAREN AURREKARIAK



1997an Europako Batzordeak nabarmendu zuen generoaren araberako eraginaren ebaluazioa funtsezko neurria zela esku-hartzeko hainbat eremutan genero-ikuspegia txertatzeko. Gero, gizonen eta emakumeen aukera-berdintasuna bultzatzeko ekintza komunitarioko IV. programan (1996-2000), Europako Kontseiluak generoaren araberako eraginaren ebaluaziorako gidaliburu bat egin zuen. Genero-eraginaren ebaluazioaren premia behin eta berriz adierazi dute Europar Batasuneko jarduera-programetan.

Edozein jarduera publiko nahiz pribatu (politikak, programak, planak...) ebalua daiteke genero-eraginaren ikuspegitik. Hala ere, Espainiako estatuan, bai estatu-eremuko araudian, bai autonomia-erkidegoetako araudian, arau orokorrak egiteko prozesuaren esparruan kokatzen dute, batez ere, generoaren araberako eraginaren txostenak egitea.

**Estatuaren eremuan** 2003an arautu zen generoaren araberako eraginaren txostenak egin behar zirela lege eta araudi guztietan. Gero, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerakoak, betebeharrak hori hedatu zuen ekonomia-eremuan, gizartearen, kulturaren eta artearen aldetik garrantzi berezia zuten planetara, bai eta enplegu publikora sartzeko hautatze-proben deialdietara ere.

**Autonomia-erkidegoetan**, Katalunia izan zen generoaren araberako eraginaren ebaluazioa abiarazi zuen lehena, 2001ean, eta berehala jarraitu zioten beste autonomia-erkidego batzuek: Extremadurak, Andaluziak, Galiziak, Murtziak, Euskadik eta Balear Uharteek. Geroago, Kanarrietan, Gaztela-Mantxan, Gaztela eta Leonen eta Asturiasen ere arautu dute genero-eraginaren ebaluazioa.

Erkidegoak <sup>(8)</sup>	ARAU-ESPARRUA
<b>Katalunia</b>	4/2001 Legea, apirilaren 9koa, Kataluniako Generalitatearen Administrazioaren antolaketan, prozedura eta araubide juridikoa arautzen dituen 13/1989 Legeak, abenduaren 14koak, 63. artikulua 2. atalean xedatutakoa aldatzen duena.
<b>Extremadura</b>	1/2002 Legea, otsailaren 28koa, Extremadurako Autonomia Erkidegoko Gobernuarena eta Administrazioarena. 8/2011 Legea, martxoaren 23koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa eta genero-indarkeriaren aurkakoa, Extremaduran.
<b>Estatua</b>	30/2003 Legea, urriaren 13koa, Gobernuak egingo dituen arauetan genero-eraginaren ebaluazioa txertatzeko neurriei buruzkoa. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerakoa.
<b>Andaluzia</b>	18/2003 Legea, abenduaren 29koa, zerga- eta administrazio-neurriak onartzen dituena. 93/2004 Dekretua, martxoaren 9koa, Gobernu Kontseiluak onetsiko dituen lege-proiektu eta araudietarako genero-eraginaren ebaluazioaren txostena arautzen duena.
<b>Galizia</b>	7/2004 Legea, uztailaren 16koa, Galiziakoa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa.
<b>Nafarroa</b>	14/2004 Foru Legea, abenduaren 3koa, Nafarroako Gobernu eta presidentearena.
<b>Murtzia</b>	6/2004 Legea, abenduaren 28koa, Murtziako Eskualdeko presidente eta Gobernu Kontseiluaren estatutuari buruzkoa. 7/2007 Legea, apirilaren 4koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa eta genero-indarkeriaren aurka babesa ematekoa, Murtziako Eskualdean.
<b>Euskadi</b>	4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa. 40/2012 Ebazpena, abuztuaren 21koa, genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari buruzko jarraibideak eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak onesten dituena.
<b>Balearrak</b>	12/2006 Legea, irailaren 20koa, emakumei buruzkoa.
<b>Kanariar Uharteak</b>	30/2009 Dekretua, martxoaren 19koa, Gobernuaren arau-ekimenak prestatzeko eta izapidetzeko barne-arauak ezartzen dituena. 1/2010 Legea, otsailaren 26koa, Kanarietakoa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa.
<b>Gaztela-Mantxa</b>	12/2010 Legea, azaroaren 18koa, Gaztela-Mantxakoa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa.
<b>Gaztela eta Leon</b>	1/2011 Legea, martxoaren 1koa, genero-eraginaren ebaluazioari buruzkoa, Gaztela eta Leonen.
<b>Asturias</b>	2/2011 Legea, martxoaren 11koa, Asturias Printzerrikoa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa eta genero-indarkeria desagerraraztekoa.

(8) Taulan ez dira kontuan hartu genero-eraginaren ebaluazioa aurrekontu publikoak egiteko soilik xedatutako autonomia-erkidegoen kasuak (Kantabria eta Errioxa).

### 3.3. laburpena. Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa abiaraztearen aurrekariak

---

- Genero-eragina ebaluatzeko premia behin eta berriz adierazten da Europako eremuan, gizonen eta emakumeen aukera-berdintasuna bultzatzeko ekintza komunitarioko IV. programatik (1996-2000) gaurdaino.
  - Estatuaren eremuan 2003an aratu ziren estreinakoz genero-eraginaren txostenak lege eta araudi guztietan. 2007an 3/2007 Lege Organikoak, martxoaren 22koak, betebeharrak hori zabaldu zuen garrantzi bereziko planetara eta enplegu publikora sartzeko hautatze-probetara.
  - Autonomia-erkidegoen mailan, 2001etik (Kataluniak orduan abian jarri zuen GEE) gaurdaino 12 autonomia-erkidegok ezarri dute nolabaiteko legedia gai horri buruz.
-





# 4. **6** ENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN EBALUAZIOA EAE-N



## 4.1. APLIKAZIO-EREMUA



Euskal Autonomia Erkidegoan, 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, honako hau adierazten du 18.1 artikuluan: “Arauk garatu eta aplikatzerakoan, bai eta planak, programak eta politika publikoak, diru-laguntzen programak eta administrazio-egintzak formulatzeko beste tresna batzuk garatu eta aplikatzerakoan ere, euskal herri-aginteeek modu aktiboan izango dute kontuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzearen helburua”.

Legearen 18. artikuluan aurreikusitakoa betetzeko, neurri batzuk xedatzen ditu Legeak; besteak beste, EAEn generoaren araberako eraginaren ebaluaziorako prozedura osatzen duten izapide hauek:

- Araua sustatzen duen organoak generoaren araberako eraginaren ebaluazio bat egin behar du (19. artikulua).
- Ebaluazio hori oinarri hartuta, desorekak desagerrarazteko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak hartu behar ditu organo horrek (20. artikulua).
- Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak txosten bat egin behar du, aurreko bi izapide horiek zuzen eta egoki bete direla egiaztatzeko (21. artikulua).
- Araua sustatu duen organoak memoria bat egin behar du, izapide horiek guztiak azaltzen dituen, eta azken dokumentuan adierazi behar du eginak daudela (22. artikulua).

Genero-eraginaren ebaluaziorako izapideak bete behar dituzte nahitaez honako hauek:

- EAeko administrazio publikoen mende edo haiei lotuta dauden sail, erakunde autonomo eta entitate publiko guztiek. Horretarako jarraibideak onetsi beharko ditu Eusko Jaurlaritzak.
- Foru- eta toki-erakundeek, dagozkien eskumenak gauzatzeko, prozedura egokitu beharko dute erakunde bakoitzaren antolaketari eta funtzionamenduari lotutako premien eta arauen berezitasun formal eta materialen arabera.

Genero-eraginaren ebaluazioa abian jartzeko prozesuan aurrera egiteko premia, bai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan, bai foru- eta toki-administrazioetan, EAeko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. planak, 2010eko ekainaren 29an Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak onetsiak, IX. legegintzaldian aurre egin beharreko erronken artean dago.

Horrenbestez, berdintasunaren alde gobernantza hobetzeko helburuen artean honako hauek aintzat hartzen dira Planean:

1. Generoaren araberako eraginaren aurreko ebaluazioa txertatzen duten arauen kopurua handitzea.
2. Berdintasuna sustatzeko neurriak txertatzen dituzten arauen kopurua handitzea.

#### **4.1. Laburpena. Aplikazio-eremua**

---

- EAEko botere publikoek berdintasunaren helburua aintzat hartu behar dute arauak egitean eta aplikatzean. Xede horretarako ezarri dira, 4/2005 Legearen 19. artikulutik 22. artikulura bitartean, genero-eragina ebaluatzeko prozesua osatzen duten izapideak.
  - Genero-eraginaren ebaluazioari dagozkion izapideak betetzeko eginbidea EAEko administrazio publiko guztiei aplikatzen zaie, bai eta foru- eta toki-administrazioei ere.
  - EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. planak gobernantza hobetzeko helburuen artean kontuan hartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioetan -foru- eta toki-administrazioak barne hartuta- GEE abian jartzeko prozesuan aurrera egitea.
-

## 4.2. EUSKO JAURLARITZAREN JARRAIBIDEAK GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURREKO EBALUAZIOA EGITEKO

### 4.2.1. GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN EBALUAZIORAKO JARRAIBIDEEN BILAKAERA



Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legeak xedatzen du Eusko Jaurlaritzak onetsi behar dituela, arau edo jarraibideen bitartez, Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak proposatuta, genero-eraginaren aurreko ebaluazioa eta 19. artikulutik 22. artikulura bitartean aurreikusitako gainerako izapideak egiteko ildoak, bai eta izapide horiek gauzatzeko eginbide-rik ez duten arau eta administrazio-egintzen zehaztapena ere.

Agindu horri erantzuteko asmoz, 2004ko urtarrilean lan-prozesu bati ekin zitzaion, Emakundek bultzatuta eta koordinatuta. Prozesu horretan Eusko Jaurlaritzako sailtako teknikariek parte hartu zuten, eta udaletako teknikariek ere lankidetzan jardun zuten.

Lan-prozesu horren ondorioz, Gobernu Kontseiluak 2007ko otsailaren 13an egindako bilkuran onetsi zituen genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeko jarraibideak, bai eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak xertatzea ere (EHAA: 51. zenbakia, 2007ko martxoaren 13koa).

Jarraibideak 2007an indarrean jarri zirenetik 2011ra arte arau eta administrazio-egintzen proiektuei buruzko 400 txosten baino gehiago egin ditu Emakundek. Datuak honako taula honetan ageri dira, urteen eta arau-mailaren arabera sailkatuta:

URTEAK	LEGEAK	DEKRETUAK	AGINDUAK	EBAZPENAK	GUZTIRA
2007	6	25	12	1	44
2008	19	46	51	2	118
2009	3	49	35	4	91
2010	9	36	29	1	75
2011	18	54	14	1	87
<b>Guztira</b>	<b>55</b>	<b>210</b>	<b>141</b>	<b>9</b>	<b>415</b>

Bestalde, 4/2005 Legea betetzeari dagokionez egindako ebaluazioek adierazten dute 2005etik 2010era nabarmen gora egin duela emakumeen eta gizonen berdintasunerako neurriak hartzen dituzten arauen kopuruak; adibidez:

- Arauen testuan hizkuntzaren erabilera ez-sexistak ia % 60 egin du gora.
- Genero-ikuspegia txertatzen duten diru-laguntzen deialdiak % 14 izatetik % 50 izatera pasa dira.
- Hautatze-prozesuei dagokienez, epaimahaietan emakumeen eta gizonen proportzio orekatua xedatzen duen klausula txertatzen duten deialdiak ia % 20 igo dira, eta ikasgaien zerrendetan berdintasunari lotutako edukiak txertatzen dituzten deialdiak, berriz % 23 igo dira.

Horrek guztiak adierazten du ebaluazioa tresna baliagarri eta egokia dela genero-ikuspegia eraginkortasunez eta sistematikoki txertatzeko Administrazioaren jardueran eta arauak egiteko prozesuan; eta, horrenbestez, egokia dela gobernantza hobetzeko, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde, esku-hartze publiko efiziente, eraginkor eta bidezkoagoa eraginez.

Hala ere, aipatutako jarraibide horien aplikazioan izandako esperientzia kontuan hartuta, eta 2010eko otsailaren 9ko Gobernu Kontseiluak xedapen orokorrak egiteko arau-esparruari buruz hartu zuen erabakiaren ondorioz, prozeduraren gardentasun, partaidetza eta arintasun handiagoa lortze aldera zabaldutako hausnarketa-prozesuaren ildotik, aldaketa batzuk egitea beharrezkotzat jo da, prozedura optimizatzeko.

Aldaketak, funtsean, honako hauek dira:

- a) Generoaren araberako eraginaren txostena egiteko betebeharra kentzea Administrazioak eta hari lotutako organo gaituek kulturaren eta/edo artearen alorreko funtsak eskuratzeko edozein motatako sari edo diru-laguntza emateko sortutako epaimahaien osaera arautzen duten administrazio-egintzei dagokienez.
- b) Zehaztasun handiagoz mugatzea generoaren araberako eraginaren txostena egin beharrik ez daukaten arau eta administrazio-egintzak.
- c) Generoaren araberako eraginaren txostena egiteko premiarik ez daukaten jardueren artean sartzea genero-ikuspegitik garrantzirik ez daukaten arau-proiektuak ere.
- d) Prozedura laburtua kentzea.
- e) Generoaren araberako eraginaren txostenaren dualtasuna (behin-behinekoa / behin betikoa) ezabatzea.

- f) Generoaren araberako eraginaren txostenaren egitura eta edukiak sinplifikatzea.
- g) Jarraibide berri bat sortzea (laugarrena), enplegu publikoa eskuratu, bete eta sustatzeko hautatze-prozesuei buruzko berariazko edukiak oinarri hartuta.
- h) Genero-ikuspegitik garrantzirik ez duela egiaztatzeko txostenari buruzko eranskin bat gehitzea.

Jarraibideak, adierazitako aldaketa horiek kontuan hartuta, 2012ko abuztuaren 21eko bilkuran onetsi ditu Gobernu Kontseiluak (EHAA: 187. zenbakia, 2012ko irailaren 25ekoa).

Jarraibideak ildo nagusien multzo ordenatu bat osatzen duten tresnatzat hartu behar dira; tresna horren helburua da 19. artikulutik 22. artikulura arte xedatutakoa aplikatu behar dutenen lana erraztea, eta, horrenbestez, genero-ikuspegiaren benetako integrazio sistematikoa bultzatzea.

#### **4.2.1. laburpena. Generoaren araberako eraginaren ebaluaziorako jarraibideen bilakaera**

- Gobernu Kontseiluak 2007ko otsailaren 13an egindako bilkuran onetsi zituen genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeko jarraibideak, bai eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak txertatzea ere.
- Jarraibideak indarrean jarri zirenetik, arau eta administrazio-egintzen proiektuei buruzko 400 txosten baino gehiago egin dira, eta nabarmen igo da emakumeen eta gizonen berdintasunerako neurriak txertatzen dituzten arauen kopurua. Horrenbestez, eraginkortasuna bista-koa da.
- Hala ere, Gobernu Kontseiluak xedapen orokorrak egiteko prozeduraren gardentasun, partaidetza eta arintasun handiagoa lortze aldera zabaldutako hausnarketa-prozesuaren eta eskuratutako esperientziaren ildotik, aldaketa batzuk egitea beharrezkotzat jo da. Adierazitako aldaketa horiek kontuan hartzen dituzten jarraibideak 2012ko abuztuaren 21eko bilkuran onetsi ditu Gobernu Kontseiluak (EHAA: 187. zenbakia, 2012ko irailaren 25ekoa).

## 4.2.2. GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN EBALUAZIOA IZAPIDETZEKO PROZESUA



Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa gauzatzeko prozesua 3 izapide nagusi hauen bidez osatzen da:

- **Lehenengoan**, arauaren edo administrazio-egintzaren organo sustatzaileak balioetsi behar du generoaren araberako eraginaren txostena egitea ote dagokion, eta, hala izanez gero, txosten hori egiteari ekiten dio.
- **Bigarren urratsa** da dokumentu hori Emakunderi helaraztea; hartara, erakunde horrek egiaztatzen du indarrean dagoen araudiaren arabera egin dela txostena, eta, egoki izanez gero, hobetzeko proposamenak planteatzen ditu. Hori guztia aintzat hartuta, txosten bat egiten du.
- **Hirugarren urratsa** gauzaten da organo sustatzaileak Emakunderen txostena jasotzen duenean. Une horretan, egoki iritzitako hobekuntzak sartu eta arauaren edo egintzaren espedienteetan.





Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa egiteko beharrezkoak diren izapideak bideratzea helburu hartuta, jarraibideak jasotzen dituen dokumentuak ezartzen ditu izapide bakoitzari dagozkion ildoak, hiru jarraibide desberdinetan:

- 1. Lehenengo jarraibidea generoaren araberako eraginaren txostenari buruzkoa da.** Xede horretarako zehazten dira genero-eraginaren txostena beharko duten arau edo administrazio-egintzak eta txostena egin beharrik ez daukatenak. Halaber, arauaren organo sustatzaileari esleitzen zaio genero-eraginaren txostena egiteko ardura, eta txosten horren egitura zehazten da. Gainera, bi eranskin gehitzen dira: lehenengoak generoaren araberako eraginaren txostena egiteko eredia jasotzen du, eta bigarrenak, berriaz, genero-ikuspegitik garrantzirik ez duela adierazten duen txostena egiteko eredia. Horrenbestez, erraztasunak ematen dira 2/2005 Legean xedatutako lehenengo bi izapideak egiteko: genero-eraginaren aurreko ebaluazioa, eta emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak txertatzea. Bi gai horiek genero-eraginaren txostena egiteari lotuta daude, eta hurrengo puntuan sakonago aztertuko dugu alderdi hori.
- 2. Bigarren jarraibidea Emakundek egin beharreko txostenari buruzkoa da.** Txosten hori egin behar du Legean eta jarraibideetan genero-eraginaren txostena egiteari buruz xedatutakoa behar bezala bete dela egiaztatzeke eta hobetzeko proposamenak egiteko. Txosten hori nahitaezkoa da; hau da, derrigorrez egin behar da, edukia loteslea ez izan arren. Txostena egiteko egutegiko 10 eguneko epea dago, xedapenen batek ezarritakoa betetzeko edota prozeduraren gainerako epeak betetzeko epe luzeago edo laburrago bat behar ez bada.
- 3. Hirugarren jarraibideak ezartzen du araua onesteko bideratutako espedienteen adierazi behar direla egindako izapide guztiak,** 19. artikulutik 22. artikulura arte xedatutakoa betetzeari dagokionez, eta arauaren azken testuak jaso behar duela genero-eraginaren txostena egin dela.

#### **4.2.2. laburpena. Generoaren arabera eraginaren ebaluazioa izapidetzeko prozesua**

---

Labur esanda, generoaren arabera eraginaren ebaluaziorako izapidea honako eskema honen bidez laburbil daiteke:

- Arauaren edo administrazio-egintzaren organo sustatzaileak balioesten du generoaren arabera eraginaren txostena egitea ote dagoen, eta, hala izanez gero, txosten hori egiteari ekiten dio.
  - Dokumentu hori Emakunderi helarazten zaio; hartara, erakunde horrek egiaztatzen du indarrean dagoen araudiaren arabera egin dela txostena, eta hobetzeko proposamenak planteatzen ditu. Hori guztia aintzat hartuta, txosten bat egiten du.
  - Organo sustatzaileak Emakunderen txostena jasotzen du eta egoki iritzitako hobekuntzak sartzen ditu. Arauaren edo egintzaren espedientean adierazten dira egindako izapideen azalpenak.
-



## 5. **G** ENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN TXOSTENA



## 5.1. ZER DA ETA ZERTARAKO BALIO DU GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN TXOSTENA EGITEAK?



Generoaren araberako eraginaren txostena da emakumeen eta gizonen berdintasunaren helburua arauen eta administrazio-egintzen prestaketan eta aplikazioan aktiboki txertatzea bideratzeko tresna bat.

Generoaren araberako eraginaren aurreko ebaluazioa, eta emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak -4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan xedatuak, hurrenez hurren- biltzen dituen dokumentua da.

Dokumentu hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, haren erakunde autonomoen eta hari lotutako entitate publikoen eremuan egiten diren arau eta administrazio-egintzen proiektuei erantsi behar zaie.

Generoaren araberako eraginaren txostenak bideratzen du, modu egituratuan, arauak prestatzen dituztenek eta arau horiei buruzko erabakiak hartzen dituztenek informazio gehiago izatea arau horien helburu diren pertsonak -emakumeek eta gizonak- dituzten premiei buruz. Horrenbestez, premia horiei erantzuteko ekitatezko konponbide orekatuak bilatzea bultzatu nahi da.

Horrenbestez, tresna horrek emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa politika publikoetan eraginkortasunez aplikatzea bideratzen du, eta lagungarria da honako prozesu hauetan:



Azken batean, generoaren araberako eraginaren txostena egitea hausnarketa-prozesu bat da, arauen prestaketarekin batera doana, eta arau horiek emakumeen eta gizonen bizitzan eragiten dituzten ondorioei buruzko informazio gehiago eta analisi hobea bideratzen ditu. Horrenbestez, arau horien eraginkortasuna handitzeko lagungarria da.

Horren haritik, genero-eraginaren txostena gauzatzeari ekin behar zaio gobernantza hobea lortzeko tresna baliagarria dela aintzat hartuta. Izan ere, genero-ikuspegitik gizarte-errealitateari buruzko informazio gehiago izateak bideratzen du emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko konpromiso handiagoko erabakiak hartzea.

### **5.1. laburpena. Zer da eta zertarako balio du generoaren araberako eraginaren txostena egiteak?**

- Generoaren araberako eraginaren txostena da emakumeen eta gizonen berdintasunaren helburua arauen eta administrazio-egintzen prestaketan eta aplikazioan aktiboki txertatzea bideratzeko tresna bat.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eremuan egiten diren arau eta administrazio-egintzen proiektuei genero-eraginaren txostena erantsi behar zaie.
- Generoaren araberako eraginaren txostenak bideratzen du arauak prestatzen dituztenek eta erabakiak hartzen dituztenek informazio gehiago izatea arau horien helburu diren pertsona guztiek -emakumeek eta gizonek- dituzten premiei buruz. Horrenbestez, lagungarria da arauen eraginkortasuna handitzeko.
- Hausnarketa-prozesu bat da, arauen prestaketarekin batera doana, eta, genero-ikuspegitik gizarte-errealitateari buruzko informazio gehiago ematen duenez, emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko konpromiso handiagoko erabakiak hartzea bideratzen du.

## 5.2. ZER ARAU ETA ADMINISTRAZIO-EGINTZETAN EGIN BEHAR DA EDO EZ DA EGIN BEHAR TXOSTENA?



Oro har, xedapen orokorrak helburu dituzten proiektu guztiei -hau da, legeen edo araudien mailako arau juridikoen proiektuei- generoaren arabera eraginaren txostena erantsi behar zaie.

Hala ere, honako arau-proiektu hauek salbuetsita daude (alegia, ez daukate generoaren arabera eraginaren txostena egin beharrik):

- a) Genero-ikuspegitik garrantzirik ez daukaten arau-proiektuak.
- b) Funtsean antolaketa helburu duten arau-proiektuak.
- c) Jada indarrean dauden arauak bategitea helburu duten arau-proiektuak.
- d) Jada indarrean dauden arauak aldatzea helburu duten arau-proiektuak.

**Administrazio-egintzen proposamenei dagokienez, enplegu publikorako eskaintzen deialdiei eta lekualdatze-lehiaketei buruzko proposamenetan soilik erantsi behar da generoaren arabera eraginaren txostena.**

Sail bakoitzaren aholkularitza juridikoko zerbitzuek erabaki beharko dute, jarraibideetan xedatutakoaren arabera, izapidetzen ari diren arau edo egintzaren proposamena bideratzeko generoaren arabera eraginaren txostena egin behar ote den, edota, aitzitik, aurreikusitako salbuespen-kausaren bat aplikatu behar ote zaion.

- Arau edo egintzaren proposamenari buruz generoaren arabera eraginaren txostena egin behar dela erabakitzen badute, txosten hori egin beharko du organo sustatzaileak, eta Emakunderi helarazi beharko dio proposamenaren zirriborroarekin batera, irizpena eman dezan.
- Salbuestea dakarren kausaren bat aplikatu behar dela erabakitzen badute, xehetasun hori adierazi beharko da espedienteari dagokion dokumentazioan, eta, gehiago luzatu gabe, izapideak bideratuko dira.

Arau-proiektuak genero-ikuspegitik garrantzirik ez duela iritziz gero soilik, araua egiteko eskumena duen organoak txosten bat egin beharko du, genero-ikuspegitik garrantzirik ez duela behar bezala justifikatuz, jarraibideen II. eranskinean ageri den ereduari jarraituz. Txosten hori Emakunderi helarazi behar zaio, arauaren zirriborroarekin bate-

ra, erakunde horrek egiazta dezan. Emakundek oniritzia adierazten badu, izapideetan aurrera egin daiteke. Bestela, Emakundek arauaren organo sustatzaileari eskatuko dio generoaren arabeko eraginaren txostena egitea.

Salbuesteko klausulen aplikazioa argitze eta bideratze aldera, zenbait irizpide eta adibide emango ditugu:

- Arau batek **genero-ikuspegitik garrantzirik ez** duela, eta, horren ondorioz, genero-eraginaren txostena egin beharrik ez duela irizteko, aintzat hartu behar da arauak emakumeen eta gizonen egoeran izan dezakeen eragina; hau da, genero-desorekak murrizteko, eta, horrenbestez, emakumeen eta gizonen gizarte-posizioa hobetzeko duen gaitasuna zehaztu behar da. Horren haritik, arau bat salbuetsita dagoela joko da emakumeen eta gizonen egoeran inolako eraginik ez duenean edo eragin gutxi duenean; hau da, emakumeek eta gizonen ekonomiaren eta gizartearen alorreko baliabideak eskuratzeko, erabakiak hartzeko eremuetan parte hartzean edo genero-desoreken jatorrian eta desoreka horiei eustean eragiten duten gizarte-arau eta balioetan ez zuzeneko ez zeharkako ondorioz ez duenean, edota ondorio horiek oso mugatuak direnean.

Dena dela, arau batek genero-ikuspegitik garrantzirik ez duela joko da herritarren eskubide eta interes legitimoak kaltetzen ez baditu. Xede horretarako, hizpide dugun gaiari buruz auzitegiek adierazitakoa kontuan hartzea komeni da. Auzitegi Gorenaren arabera, interes legitimoa dago susma daitekeenean egin nahi den arauak herritarren bat jar dezakeela onura material edo juridikoren bat, edota moralaren alorreko onuraren bat lortzeko egoera legal eta naturaletan (ez da beharrezkoa alde aurretik bermatuta geratzea nahitaez lortuko duela, ez eta eskubideak adierazten dituen berariazko legezko agindu batean oinarritzea), bai eta sortutako edo sor daitekeen egoeraren iraupenak kalteren bat eragin dezakeenean, baldin eta eragin hori ez bada urruneko edo zeharkako ondorioa, emandako edo emango den arauaren berehalako emaitza baizik (Auzitegi Gorenaren epaia, 2005eko apirilaren 20koa). Horrenbestez, arau batek herritarren eskubide eta interes legitimoetan eraginik ez duela joko da, kideren bati zuzeneko onuraren bat edo kalteren bat eragingo ez diola iritziz gero.

**Esate baterako**, eraikuntzako eta hirigintzako obrak egitean erabiliko diren materialen estandarrak eta kalitate-parametroak arautzen dituen arau-proiektu batek, emakumeen eta gizonen egoeran eragiteko inolako gaitasunik ez duenez, generoaren arabeko eraginaren txostena egin beharrik ez duela jo daiteke. Halaber, kontserbazio-guneak izendatzen eta mugatzen dituzten ingurumeneko arauak salbuetsita daudela jo daiteke.



- **Funtsean antolaketa helburua** dutela aintzat hartuta, salbuetsita daude, berariaz, honako xedapen hauek:
  - Egitura organiko eta funtzionala helburu duten dekretuak.
  - Kontsulta, aholkularitza, ikerketa eta koordinazioa helburu duten eta administrazio publikoetako langileek soilik osatuta dauden organoen sorrera, antolaketa eta funtzionamendua arautzen duten proiektuak.
  - Administrazioako erregistroak sortzeko edo antolatzeko proiektuak.

Dena dela, proiektu horiez gain, litekeena da antolaketari lotutako edukiagatik salbuetsita daudela iritzitako beste proiektu batzuk ere egotea. Horretarako, erabakigarria izango da berrmatzea proiektuak ez duela adierazten herritarren parte-hartzerik administrazioaren eginkizunetan.

**Adibidez**, atzerrian egongo den Euskadiko ordezkari bat sortzeko eta arautzeko arau-proposamen baten izaera, funtsean, antolaketaren eremukoa denez, salbuetsita dagoela jo daiteke. Halaber, arau-proiektu bat salbuetsita dagoela jo daiteke, herritarrek zerbitzu publikoak elektronikoki eskuratzeko duten eskubidearen aintzatespenean eragin gabe, EAEko administrazio publikoan eskubide hori gauzatzeko barne-antolaketa aldertiak arautzen baditu.

- Nolanahi ere, **jada indarrean dauden arauak bategitea** helburu duten proiektuak salbuetsita daudela joko da, arauen aldaketarik ez baitakarte.

**Esate baterako**, Euskadiko aurrekontuen araubidearen alorrean indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onestea helburu duen arau-proiektu bat salbuetsita dagoela joko da zuzenean, eta ez du izango generoaren arabera eraginaren txostenik egin beharko.

- **Indarrean dauden beste arau batzuk aldatzea** helburu duten arau-proiektuak salbuetsita daudela joko da eta ez dute generoaren arabera eraginaren txostenik egin beharko, baldin eta aldaketa horrek emakumeen eta gizonen egoeran funtsezko eraginik ez badu. Ildo horretan, arau-aldaketa bat funtsezkotzat jo daiteke, genero-eraginaren ikuspegitik, emakumeen eta gizonen egoeran eta/edo herritarren eskubide eta interes legitimoetan eragin erabakigarria baldin badu.

Hortaz, **adibidez**, prestazioak eta gizarte-zerbitzuak eskuratzeko betekizunak aldatzea eta/edo zorro horren edukia aldatzea helburu duen arau-proiektu batek genero-eraginaren txostena beharko luke; aitzitik, aldatetako administrazio barruko izapideei buruzkoak eta/edo administrazioen arteko koordinazioari buruzkoak izanez gero, salbuetsita dagoela jo daiteke.

- **Administrazio-egintzak** izanez gero, generoaren arabera eraginaren txostena egin beharrik ez dago honako kasu hauetan, berariaz:
  - Planak, programak edo politika publikoak adierazteko beste tresna batzuk.
  - Edozein laguntza publiko (diru-laguntzak, bekak, sariak...) emateko deialdiak, baldin eta, jarraibide horien ondorioetarako, ez badira arau-xedapen orokortzat hartzen, irauteko asmorik ez izateagatik, eta denbora-epe batean berez amaitzeagatik.
  - Zerbitzu-komisioak eta lanpostuen balorazio-prozesuak ebatzen dituzten egintzak.

**Adibidez**, erakunde pribatuetan berdintasunerako planak egiteko diru-laguntzak ematea oro har eta denbora-mugarik gabe arautzeko dekretu-proiektu baten genero-eraginaren txostena egin beharko litzateke, baina salbuetsita egongo liriteke dekretu horren babesean urtero egingo diren deialdiak.

- **Kontratu publikoek** ere ez dute generoaren arabera eraginaren txostena egin beharrik izango. Hala ere, esan beharra dago ekainaren 2ko 6/2008 Ebazpena, Jaurilaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariarena, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta dagokion sektore publikoaren kontratazioan gizarte-irizpideak, ingurumenekoak eta beste politika publikoak aintzat hartzeko, eta bereziki emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak txertatzeko aurreikusitako irizpideak kontuan izateko erabakia argitaratzea xedatzen duena.

Amaitzeko, gogoan izan behar da generoaren arabera eraginaren txostena eta 4/2005 Legearen 19. artikulutik 22. artikulura bitarteko xedapenetan aurreikusitako izapideak egin beharrik ez daukaten arauak eta beste administrazio-jarduera batzuk egoteak ez du esan nahi haiek prestatzeaz, haiei buruzko erabakiak hartzeaz edota praktikan jartzeaz arduratuko diren pertsonak salbuetsita daudenik arau, politika eta ekintza guztietan desorekak desagerrarazteko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko agindutik, aipatu legearen 3.4 eta 18.1 artikuluetan xedatutakoari jarraiki. Kasu horietan, organo arduradunen esku geratuko da aginduak betetzeko formula egokiena hautatzea, analogiak dauden alderdietan jarraibideak erreferentzia gisa erabiltzeko aukeraren kalterik gabe. Nolanahi ere, kasu horietan baliagarria izango da saileko berdintasun-unitateko adituen aholkua.

## 5.2. laburpena. Zer arau eta administrazio-egintzetan egin behar da edo ez da egin behar txostena?

---

- Oro har, xedapen orokorrak helburu dituzten proiektu guztiei -hau da, legeen edo araudien mailako arau juridikoen proiektuei- generoaren araberako eraginaren txostena erantsi behar zaie.

Hala ere, proiektu hauek salbuetsita daude:

- Genero-ikuspegitik garrantzirik ez daukaten arau-proiektuak. Kasu horretan, sailak justifikatu eta Emakundek egiaztatu behar du.
  - Funtsean antolaketa helburu duten arau-proiektuak.
  - Jada indarrean dauden arauak bategitea helburu duten arau-proiektuak.
  - Jada indarrean dauden arauak aldatzea helburu duten arau-proiektuak.
- Administrazio-egintzen proposamenei dagokienez, enplegu publiko-rako eskaintzen deialdiei eta lekualdatze-lehiaketei buruzko proposamenetan soilik erantsi behar da generoaren araberako eraginaren txostena.
-

### 5.3. NORK EGIN BEHAR DITU GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN TXOSTENAK?



Generoaren araberako eraginaren txostena egiteko eskumena duen administrazio-organoa da araua edo administrazio-egintza sustatzen duena, unitate izapidegilearen bitartez; hau da, arau- edo egintza-proposamena prestatzeko eskumena duen organo bera.

Izan ere, organo hori da, hain zuzen, arautu nahi den materia hobeto ezagutzen duena, eta, azken finean, berdintasunaren printzipioa dagokion esku-hartze eremuko araudian txertatzearen ardura bere gain hartu behar duena. Berdintasuna ez baita berez etorriko, eta hura lortzea ez da soilik berdintasunerako erakundeen erantzukizuna. Aitzitik, politika publikoak diseinatze-ko eta abian jartzeko ardura duten pertsonen eta berdintasunerako erakundeen arteko lankidetza behar-beharrezkoa da.

Hala ere, genero-eraginaren txostenak egiteak zailtasunak izan ditzake araudia prestatzeaz arduratzen diren teknikarientzat; izan ere, kasu askotan, ez dute berdintasunaren alorreko berriazko ezagutzarik, eta, horrenbestez, ez dakite nola ebaluatu generoaren araberako eragina, eta ez dute ulertzen ebaluazio hori egiteko premia, ez eta lortu nahi den xedea ere.

Bestalde, haien eskura aholkularitza eta prestakuntza egokia jarritz gero, eragin daiteke, neurri handi batean, pixkanaka generoari lotutako gorabeherak identifikatzea eta eguneroko lanean berdintasun-helburuak txertatzea, pedagogikoki eta egituretan eraginez, genero-mainstreamingaren planteamenduen arabera. Funtsean, helburua da arauak egiten dituztenek, pixkanaka, berdintasunezko ikuspegi batetik jardutea, generoa aintzat hartuta.

Teknikariek berdintasunaren alorrean laguntza izan dezaten, sail guztiek dituzte gaien espezializatutako langileak, eta haien funtzioetako bat da, hain zuzen, genero-eraginaren txostenak egiteko aholku ematea.

Gainera, generoaren araberako eraginaren ebaluazioari buruzko atal bat sortu da Emakunderen intraneten eta, atal horren bidez, jarraibideak eta material lagungarriak eskura daude. Halaber, intraneten bidez, Jaurlaritzako langileek kontsulta ditzakete oraindaino egingako genero-eraginaren txostenak.

Orobat, generoaren araberako eraginaren ebaluazioari buruzko berriazko prestakuntza-ikastaro bat diseinatu da generoaren araberako eraginaren txostenak egiten dituzten teknika-rientzat. Berdintasunean hezteko 2008-2018 aldirako planaren barruan dago ikastaroa, urtean behin ematen da, eta 20 orduko iraupena du.

### 5.3. laburpena. Nork egin behar ditu generoaren araberako eraginaren txostenak?

---

- Generoaren araberako eraginaren txostena egiteko eskumena duen administrazio-organoa da araua edo administrazio-egintza sustatzen duena, gaia hobeto ezagutzen duena eta berdintasunaren printzipioa txertatzearen ardura bere gain hartu behar duena delako.
  - Horretarako berdintasunaren alorreko gutxieneko ezaupide batzuk behar direnez, honako baliabide hauek xedatu dira:
    - Saileko berdintasunerako administrazio-unitateko adituen aholkua eskuratzeko aukera.
    - Generoaren araberako eraginaren ebaluazioari buruzko atal bat sortu da Emakunderen intraneten, eta, atal horren bidez, jarraibideak eta material lagungarriak eskura daude.
    - Generoaren araberako eraginaren ebaluazioari buruzko berriazko prestakuntza-ikastaro bat diseinatu da teknikarientzat.
-

## 5.4. NOIZ EGIN BEHAR DIRA GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN TXOSTENAK?



Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa “ex-ante” ebaluazioa da; alegia, araua pres-tatzeko edo egiteko aldiari egiten da, arau-proposamena onetsi eta/edo abian jarri aurretik.

“Ex-post” ebaluazioarekin alderatuta, “ex-ante” ebaluazioak honako onura hauek dakartza:



Generoaren araberako eraginaren txostena egiten hasteko une egokiena da etorkizuneko arauaren funtsezko alderdiak (arrazoia, xedea, esku-hartzearen eremua, helburu eta neurri nagusiak...) erabakita dauden unea, baina testua idatzi aurretik, edo idazketa amaitu aurretik, behintzat. Horrenbestez bideratzen da emakumeen eta gizonen errealitate bereizgarriak eza-gutzea, eta desorekak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko helburuak eta neurriak planteatu daitezke; izan ere, horrelako proposamenak bideratzea konplexuagoa izan ohi da tes-tuaren idazketan oso aurrera egin ondoren.

Litekeena da hasiera batean galdera-sorta oso-osorik betetzeko behar den informazioa ez izatea, eta baliteke hasieran deskribatutako egoera aldatzea ere, araua pres-tatzeko prozesuan aurrera egiten den heinean sartutako aldaketen ondorioz. Horregatik, kasu horietan, hasieran

egindako arauaren deskribapena eta egoeraren analisisa osatu edo aldatu egin beharko dira, hala badagokie, inguruabar berrietara egokitzeko.

Arau juridiko bat izanez gero, generoaren araberako eraginaren txostenaren idazketa amaituko da "aurretiko onespina" gauzatu aurretik; hau da, informazio edo entzunaldi publikoen fasea hasi aurretik, eta txostenak eta nahitaezko irizpenak egin aurretik. Une horretan egingo du Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak nahitaezko txostena, 4/2005 Legearen 21. artikuluan xedatuta dagoena.

Administrazio-egintzei dagokienez, txostenaren idazketa amaitu behar da zuzemen-egintzak bete aurreko unean, eta orduan egingo du txostena Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak.

#### **5.4. laburpena. Noiz egin behar dira generoaren araberako eraginaren txostenak?**

- Generoaren araberako eraginaren txostena egiten hasteko une egokiena da etorkizuneko arauaren funtsezko alderdiak erabakita dauden unea, baina testua idatzi aurretik, edo idazketa amaitu aurretik, behintzat. Horrek bideratuko du hasieratik kontuan hartzea arauak gizonengan eta emakumeengan izango duen eragina, eta eragin horien araberako diseinua egiteko aukera ematen du.
- Arauen kasuan "aurretiko onarpena" gauzatu aurretik amaituko da txostenaren idazketa, eta, administrazio-egintzen kasuan, zuzemen-egintzak bete aurretik. Une horretan egingo du txostena Emakundek.

## 5.5. NOLA EGITEN DIRA GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN TXOSTENAK?

Generoaren araberako eraginaren txostenak honako zati hauek ditu:

- **Arau edo administrazio-egintzen proiektuen deskribapen orokorra.** Atal honetan proiektuari buruzko datu orokorrak adierazi behar dira.
- **Generoaren araberako eraginaren aurreko ebaluazioa.** Atal honetan aztertu behar dira arauan edo egintzan proiektatutako jarduerak eragin ditzaken ondorio positibo nahiz kaltegarriak, arautzea edo esku-hartzea egin nahi den gizarte-testuinguruan, emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerrarazteari eta berdintasuna sustatzeari dagokionez
- **Emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak.** Atal honetan adierazi behar dira arauan txertatutako neurriak, bai eta onetsi ondoren ezartzea aurreikusitako neurriak ere, arauak izan ditzaken ondorio negatiboak indargabetzea edota balizko ondorio positiboak sendotzea helburu hartuta.

Ondorengo orrialdeetan ageri da zati bakoitzak, zehatz-mehatz, zer atal barne hartzen dituen eta nola osatu behar diren.

### 5.5.1. ARAU-PROIEKTUAREN EDO ADMINISTRAZIO-EGINTZA PROPOSAMENAREN DESKRIBAPEN OROKORRA



Atal honetan arauaren eta/edo administrazio-egintzaren proiektuaren izena adierazi behar da, bai eta sustatzen duen sailaren, eta, hala badagokio, zuzendaritzaren izena.

Halaber, adierazi behar da proiektuari edo proposamenari lotuta dauden beste arau edo plan batzuk, aurrekariak, justifikazioa eta testuingurua identifikatzea bideratzen dutenak.

Amaitzeko, proiektuaren edo proposamenaren helburu orokorrak adierazi behar dira, bai eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburuak ere.



### 5.5.1. laburpena. Arau-proiektuaren edo administrazio-egintza proposamenaren deskribapen orokorra

---

- Arau-proiektuaren edo administrazio-egintza proposamenaren izena adierazi.
  - Sustatzen duen saila eta zuzendaritza adierazi.
  - Proiektuari edo proposamenari lotutako beste arau, plan eta abar adierazi, halakorik balego.
  - Arau-proiektuaren edo administrazio-egintza proposamenaren helburu nagusiak azaldu.
  - Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburuak azaldu.
- 

### 5.5.2. GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURREKO EBALUAZIOA



Atal honetan jaso behar da, berezita, emakumeen eta gizonen gizarte-egoera, arauak eragina izango duen eremuan; hartara, lehendik egon daitezkeen sexuagatiko desorekak identifikatu, eta, horren arabera, araua aplikatuko den gizarte-testuinguruan antzemandako desorekak murrizteko edo desagerrarazteko, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko bidean arauak eragin positiboa edo negatiboa izango ote duen ebaluatu.

Halaber, ebaluazio-prozesu guztian kontuan hartu behar dira bereizkeria anizkoitza pairatzen duten emakume eta emakume-taldeen berriazko premia eta interesak. Izan ere, sexuagatik pairatzen duten bereizkeriaz gain, beste arrazoi batzuegatik ere pairatzen dute bereizkeria: arrazagatik, koloreagatik, jatorri etnikoagatik, hizkuntzagatik, erlijioagatik, iritzi politikoenagatik edo bestelako iritziengatik, gutxiengoaren naziokoa izateagatik, ondareagatik, jaiotzagatik, desgaitasunagatik, adinagatik, sexu-joeragatik edo beste edozein egoera edo inguruabar pertsonal edo sozialagatik.

Giltzarrizkoa da egoeraren analisia osoa eta errealitatearekin bat datorrena izatea; izan ere, analisi hori oinarri hartuta ebaluatuko da genero-eragina eta neurrien proposamen egokia egingo da geroago. Hau da, ziur asko, genero-eraginaren txostenaren atal funtsezkoena.

Horrenbestez, emakumeen eta gizonen egoeraren analisia egiteko, informazio kuantitatibo eta kualitatiboa bilatu behar da aldez aurretik. Horretarako, honako informazio-iturri hauek erabili behar dira, funtsean, proiektuari dagokion eremua edo sektorea aintzat hartuta:

- Estatistika ofizialen datuak, sexuaren arabera berezita.
- Genero-harremani buruzko azterlan, ikerketa edo iritzi-inkestak.
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea xede duten eskubide, agindu eta helburuak jasotzen dituzten arau juridiko eta bestelako dokumentuak.

Analisia sexu bakoitzaren arabera berezita egin behar denez, Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) eta sailetan azterlan eta estatistiken alorreko eskumenak dituzten organoek egokitu egin behar dituzte estatistika eta azterlanak, 4/2005 Legearen 16. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Helburu horretarako, Eustatek, Emakunderekin lankidetzan, webgune berri bat sortu zuen 2008an emakumeen eta gizonen berdintasunerako, 200 taula inguru bilduta. Atal horrek oinarriko informazioa errazago eskuratzeko aukera ematen du, baina kontuan izan behar da Estatistika Erakundeak pertsoneri buruzko datuak biltzeko egindako estatistika eta galdera-sorta guztietan aintzat hartzen dela sexuaren aldagaia; horrenbestez, berezitateko informazioa ez da berdintasunari buruzko atal berezian soilik ageri.

Halaber, oso baliagarriak izan daitezke Emakundek berdintasunaren eta generoaren alorrean egindako txosten eta azterlanak, aldian behin argitaratzen dituen "Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak", bai eta sailek egindako sektore-azterlanak, guztiak ere web-orrien bidez kontsulta daitezkeenak.

Generoaren araberako eraginaren aurreko analisi eta ebaluazioa, honako irizpide hauen arabera berezitate egin behar da:

## EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA:

Emakumeen eta gizonen artean egon daitezkeen desberdintasunak aztertu behar dira, bai proiektuaren eremuan duten presentziari erreparatuta, bai proiektua aplikatzearen ondorioz espero diren emaitzei begira. Helburu bereko arauen bat inoiz izan bada, baliagarria izan dai-

teke gizonen eta emakumeen artean izan zuen eragina adieraztea kuantitatiboki eta kualitatiboki.

ERAGIN BAT POSITIBOTZAT HARTUKO DA baldintza hauek betetzen badira:

- Hasieran desabantaila-egoeran dagoen sexuan eragin handiagoa aurreikustea.
- Edo emakumeen eta gizonen proportzioa izatea, gutxienez, eremuan duten presentziaren antzekoa.

**Adibidea:** ikasketa akademiko jakin batzuetan berriki graduatu diren gazteek enpresetan praktikak egitea helburu duen proiektu batean, ikasketa horietan emakumeen eta gizonen presentzia baldin bada % 30ekoa eta % 70ekoa, hurrenez hurren, praktikak esleitzean emakumeen presentzia gutxienez % 30ekoa dela bermatzeko neurriak hartu beharko dira. Halaber, emakumeak lanean hasteko zailtasun handiagoak dituztela kontuan hartuta, ekintza positiboko neurriak planteatu daitezke, praktikak esleitzean % 30 baino proportzio handiagoa sustatzeko.

## BALIABIDEAK IZATEA:

Gai horretan giltzarrizkoak diren baliabideen emakumeen eta gizonen arteko banaketa aztertzea behar da. Baliabidetzat hartzen dira, besteak beste: denbora, espazioa, dirua eta baliabide ekonomikoak, informazioa, hezkuntza eta prestakuntza, enplegua eta karrera profesionala, etxeko lana edo ugalketa-lana, teknologia berriak, osasun-laguntzako zerbitzuak, etxebizitza, garraiobideak, aisia... Analisia egin behar da, honako alderdi hauek aintzat hartuta: Nork egiten du eta zer egiten du? Nork ditu eskura baliabideak eta zer baliabide dira? Zer desberdintasun daude eta zergatik? Zer giltzarrizko faktorek eragiten dute desberdintasun horietan?

ERAGIN BAT POSITIBOTZAT HARTUKO DA baldintza hauek betetzen badira:

- Antzemandako desberdintasunak (emakumeen eta gizonen arteko aldea) desagertuko direla aurreikustea.
- Edo desberdintasun horiek murriztuko direla, gutxienez, baldin eta murrizketa horrek badakar emakumeen autonomia handitzea (eta gizonena, zenbait kasutan) eta baliabide gehienetan edo garrantzitsuenetan eragiten badu.

**Adibidea:** lanaldi partzialeko enplegua sustatzea helburu duen proiektu batek murriztuko ditu, ziur aski, emakumeen eta gizonen enplegu-tasetan dauden aldeak (giltzarrizko baliabidea), emakumeak baitira gehienbat enplegu-modalitate hori hartzen dutenak. Baina, denboraren erabilera (giltzarrizko beste baliabide bat) aztertzen duten inkestak adierazten digu lanaldi partzialeko enpleguak dituzten emakumeen guztirako lan-karga -produktio-lana eta ugalketa-lana zenbatuta (funtsezko baliabidea genero-analisan) handiagoa da, lanaldi osoko enpleguak dituzten emakumeekin eta lanaldi partzialeko enpleguak dituzten gizonekin alderatuta. Gainera, irabaziei dagokienez (giltzarrizko beste baliabide bat), emakumeen eta gizonen arteko aldeak, oro har, murriztuko badira ere, enplegua duten emakume eta gizonen arteko aldeak areagotuko dira. Osotara hartuta, horrelako proiektuak ez dira lagungarriak berdintasuna sustatzeko, eta eragin negatiboa dute, non eta ez den aldi baterako eta egoeraren araberrako planteamendua, eta, gainera, aldi berean ondorio negatiboak aurre egiteko neurriak hartuta (esate baterako, enpresei laguntzak ematea emakumeen lanaldi partzialeko kontratuak lanaldi osoko kontratu bihurtzeko, gizonen artean etxeko lanetan erantzukidetasuna sustatzeko neurriak, zerbitzu soziokomunitarioak sortzea, lanaldi partzialari lotutako baldintzak eta esku-bideak hobetzea eta abar).

## ERABAKIETAN PARTE HARTZEA:

Emakumeen eta gizonen parte-hartzeari buruzko analisia egin behar da, bai eta hain ordez-kari diren entitateena ere, araua prestatzeko eta gauzatzeko prozesuan eta proiektuak arautu nahi duen eremuko erabakiak hartzeko prozesuan.

ERAGIN BAT POSITIBOTZAT HARTUKO DA baldintza hauek betetzen badira:

- Emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua aurreikustea; hau da, sexu bakoitzekoak % 40 izatea, gutxienez.
- Edo emakumeen eta gizonen proportzioa izatea, gutxienez, proiektuari dagokion eremuan duten presentziaren antzekoa.

**Adibidea:** kirol-federazio jakin batean gizonen eta emakumeen presentzia % 80koa eta % 20koa bada, hurrenez hurren, gobernu-organo gorena hautatzeko garaian emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatzeko neurriak hartu beharko dira, edo, gutxienez, emakumeen presentzia % 20tik gorakoa izatea.

## GIZARTE-ARAUAK ETA BALIOAK:

Irizpide honi dagokionez, aztertu behar da gizarte-arauek eta balioek duten eragina tradizionalki ezarritako roletan, sexuaren araberako lan-banaketan, eta emakumeen zein gizonen jarrera eta portaeretan, bai eta gizonei eta emakumeei edota ezaugarri maskulino eta femeninoei ematen zaien balioetan dauden desberdintasunak ere.

ERAGIN BAT POSITIBOTZAT HARTUKO DA baldintza hauek betetzen badira:

- Generoari buruzko gizarte-arauak berregitea eragiten duten egitura eta mekanismoak aldatzea. Horrek esan nahi du sexuaren araberako lan-banaketan eragitea, bai eta bizitza pribatuaren antolaketan ere, dependentzia-egoerak desagerrarazteko, edota antolaketa soziopolitikoan, herritarren eskubideak gauzatzea bideratzeko.
- Edo, gutxienez, estereotipoen urraketan aurrera egitea, emakumei eta gizonei eta batzuek eta besteek egiten dituzten gauzei ematen zaien balioen arteko aldeak murrizten laguntzea, genero-sozializazioaren bidez emakumei eta gizonei esleitutakoa naturalizat hartzea zalantzan jartzea, eta emakumeen barruko eta gizonen barruko aniztasuna aintzat hartzea.

**1. adibidea:** mutilekin maskulinitatea (gure kulturaren testuinguruan nola erutzen diren gizon gisa) lantzen duen bide-hezkuntzako proiektu bat, arriskua dakarten praktiken eta gizentasunaren arteko lotura zalantzan jartzen duena, estereotipoak apurtzeko bidean aurrera egitea dakar.

**2. adibidea:** amatasun- eta aitatasun-baimenak berdinak izatea sustatzen duen proiektua, iraupen berekoak eta besterenezinak izan daitezen, eragina du zainketa pertsona guztien ardura gisa hartzean, eta lagungarria da zainketa nagusiki emakumeen zeregina dela dioen sineste orokortua desagerrarazteko bidean.

## BERDINTASUNERAKO ARAUDIA BETETZEA:

Helburua da aztertzea arauetan eta beste tresna juridiko batzuetan -esate baterako, planetan eta ekintza-programetan- aurreikusitako aginduek emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eremuan duten eragina, bai eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan eta biktimei arreta eta babesa ematean ere.

ERAGIN BAT POSITIBOTZAT HARTUKO DA baldintza hauek betetzen badira:

- Agindu horiek betetzea.
- Eta/edo proiektua bera aurrerago joatea, arau edo tresna juridiko horietan xedatutakoa baino.

**1. adibidea:** Administrazioko eta gizarte zibileko ordezkarien parte-hartzean oinarritutako organo aholku-emaile baten funtzionamendua arautzen duen arau batek eragin positiboa izango du, kideen artean emakumeen eta gizonen presentzia % 40koa eta % 60koa izatea ezartzen badu, bai eta bi sexuen % 50eko presentzia planteatzen badu ere; izan ere, lehenengo kasuan betetzen da 4/2005 Legearen 23. artikuluan xedatutako agindua, 3.7 artikuluari dagokionez, eta bigarren kasuan, berriz, haratago doa, gizartean emakumeek eta gizonek duten proportzioaren arabera ordezkaritza planteatzen baitu.

**2. adibidea:** Lisboan 2000 urtean Kontseilu Europarrak egindako bilkuran enplegurako europar estrategia berriro definitu eta honako helburu hau planteatu zuten: Europar Batasunean emakumeen enplegu-tasa % 60ra iristea. Proiektuan helburu hori bera planteatuz gero, edota hortik gorakoa, helburu hori lortzeko neurri eraginkorrek batera, eragin positiboa izango du.

## 5.5.2. laburpena. Generoaren arabera eraginaren aurreko ebaluazioa

- Etorkizuneko arau edo administrazio-egintzaren ondorioz eragindako onura edo emaitzetan emakumeen eta gizonen presentzia hori sektoreko desorekak murrizteko lagungarria izango dela aurreikusten al da?
- Etorkizuneko arau edo administrazio-egintzaren ondorioz baliabideak eskuratzeko dauden desberdintasunak desagerraraztea, edo, gutxienez, murriztea aurreikusten al da?
- Erabakiak hartzeari dagokionez, etorkizuneko arau edo administrazio-egintzak emakumeen eta gizonen proportzio orekatuak, edo, gutxienez, eremuan duten presentziaren arabera aurreikusten al ditu?
- Etorkizuneko arau edo administrazio-egintzan planteatutako helburu eta neurriak emakumei edo gizoni esleitzen zaizkien balioak eta gizarte-arauak gainditzeko edo aldatzeko baliagarriak izatea aurreikusten al da?
- Bereizkeria saihestea eta berdintasuna sustatzea helburu duten arau eta bestelako tresna juridikoak betetzea bermatzen al da eta prozesu horiek hobera egitea aurreikusten al da?

### 5.5.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO DESOREKAK DESAGERRARAZTEKO ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK



Egindako genero-eraginaren ebaluazioaren arabera, arau edo administrazio-egintzaren proiektuan sartu behar dira emakume- eta gizon-kolektiboen egoeretan sor dezakeen eragin negatiboa indargabetzea helburu duten neurriak, bai eta antzemandako desorekak desagerraraztea eta sexuen berdintasuna sustatzea helburu dutenak ere.

Horrek esan nahi du berdintasunean aurrera egiteko bidean eragin negatiboa duen neurri, tresna, prozedura edo nolabaiteko xedapenen bat baldin badago, eragin hori indargabetzeko neurriak hartu behar direla. Eta eragina positiboa izatea aurreikusten bada ere, ondorio positibo horiek sendotzeko neurriak planteatu daitezke.

Neurri horiek bi motatako proposamenetan gauza daitezke:

## ARAU-PROIEKTUAREN EDUKIARI BURUZKO NEURRIAK:

Taula osatzen duten 6 ataletako bakoitzean adierazi behar da arau- edo egintza-proiektuaren edukian neurriren bat sartu ote den.

Hala bada, adierazi behar da zenbat neurri txertatu diren, jasotako sailkapenaren arabera; ondoren zehaztu behar da proiektuko zenbatgarren artikuluan txertatu den, eta neurriaren deskribapen labur bat egin behar da.

**1. adibidea:** unibertsitate-eremuko prestakuntzan eta ikerkuntzan emakumeen desabantaila-egoeraren alde aurreko diagnostikotik abiatuta, eremu horretan prestakuntzarako eta ikerkuntzarako laguntzak arautzeko administrazio eskudunaren arau-proiektuak zenbait neurri hartu behar ditu; esate baterako, lehentasun hauek xedatzeko klausulak txertatzea: a) emakumeen ardurapeko proiektuak, emakumeen proportzio gutxiago dagoen ikerkuntza-adarretan; b) emakumeen eta gizonen proportzio orekatuak dituzten ikerketa-taldeak; eta c) edukian genero-ikuspegia txertatzen duten proiektuak. Kasu horietan, emakumeen aldeko ekintza positiboak (a), emakumeen eta gizonen proportzio orekatuak sustatzeko neurriak (b) eta diru-laguntzak emateko garaian genero-ikuspegia txertatu eta berdintasuna irizpide gisa hartzeko neurriak (c). Hori guztia taularen dagokion atalean zehaztu behar da; gainera, neurriak zer artikulutan txertatu diren adierazi eta haien deskribapena egin behar da.

**2. adibidea:** kontrataziorako laguntzak ematea helburu duen arau-proiektuak, alde aurreko diagnostikoa oinarri hartuta, onuraduna familia bateko guraso bakarra izanez gero laguntza gehitzea planteatzen badu, orokorrean adierazi arren -bai gizonen, bai emakumeen aplikatzekoa da- ondorio positiboak eragingo ditu emakumeen gizarte-egoeran, kolektibo hori osatzen duten kide gehienak emakumeak baitira. Neurri horiek adierazi behar dira "itxura neutroa izan arren, genero-eragin positiboa izatea aurreikusitako neurriak" ageri diren atalean.



**3. adibidea:** diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko laguntzak jaso ahal izateko errenta arautzea helburu duen arau-proiektu batek, irismen handiagoko neurrien kalterik gabe, zioen azalpenean jaso dezake emakumeen eta gizonen artean diru-sarreraren alorrean dagoen desorekari buruzko aipamena (a). Bestalde, zioen azalpenean arauaren helburuetako bat pobrezia-aren feminizazioari aurre egitea dela zehazteaz gain (b), xeda daiteke diru-sarrerak bermatzeko errenta hori jasotzen duten pertsonen buruzko azterlan eta ikerketek emakumeen eta gizonen egoera bereizgarriak aztertu behar dituztela (c), bai eta etxeko tratu txarren biktima direnei ez eskatzea baldintza jakin batzuk, laguntza eskuratu ahal izateko (d). Kasu horretan, genero-ikuspegiaren txertaketa sustatzeko hiru neurri dira; haietako bi berdintasuna aintzat hartzearen bidez, adierazpen gisa (a) eta helburu gisa (b) eta hirugarrena emakumeen eta gizonen egoera bereizgarriak hobeto ezagutzearen bitartez (c). Gainera, itxura neutroa duen neurri bat dago, baina genero-eragin positiboa aurreikusten zaio; izan ere, etxeko tratu txarren biktima gehientsuenak emakumeak dira (d). Hori guztia taularen ataletan zehaztu behar da; gainera, aipatutako neurriak zer artikulutan txertatu diren adierazi eta haien deskribapena egin behar da.

## ETORKIZUNeko ARAUA APLIKATZEARI BURUZKO NEURRIAK, ETA ARAU-PROIEKTUAN JASOTAKO BERDINTASUNERAKO HELBURU ETA NEURRIEN ERAGINKORTASUNA OSATZEKO EDO AREAGOTZEKO LAGUNGARRIAK IZAN DAITEZKEEN BESTE JARDUERA BATZUK GAUZATZEARI BURUZKOAK:

Arauaren edo egintzaren testuan eragin negatiboa murrizteko, edo, hala badagokio, aurreikusitako eragin positiboa sendotzeko txertatutako neurriez gain, etorkizuneko arau edo egintza abian jartzeari edo aplikazioari buruzko neurriak hartzea aurreikus daiteke.

Halaber, kontuan hartu behar da emakumeen eta gizonen arteko desoreka egiturazko fenomeno dela, hura desagerrarazteko askotariko eremu ugaritan esku hartu behar dela, eta eremu horiek, eskuarki, elkar lotuta daudela. Horrenbestez, hainbat kasutan, benetako aldaketa eraldatzaileak bideratzeko, arau jakin batean eta/edo haren aplikazioan txerta daitezkeen neurriak ez dira nahikoak, eta eremu edo sektore zehatz batean soilik dute eragina. Horregatik, planteatu daitezke, halaber, arau-proiektuan jasotako berdintasunerako helburu eta neurrien eraginkortasuna osatzeko edo areagotzeko lagungarriak izan daitezkeen zenbait neurri.

Arauaren organo sustatzaileak neurri horietakoren bat hartuz gero, genero-eraginaren txostenean adieraziko da, bigarren taulan. Neurrien kopurua ere zehaztu beharko da, sailkapenaren arabera, bai eta haien deskribapen txiki bat ere.

**1. adibidea:** kanpainen bidez edota beste informazio- eta sentsibilizazio-jarduera batzuen bitartez herritarren artean edukiak hedatzea helburu duen proiektu batean, neurriak aurreikusi behar dira, informazioa gizonei eta emakumeei berdin helarazteko -bereizkeria anizkoitza pairatzen duten emakumeak barne hartuta- mezu eta kanal egokiak erabiltzen direla bermatzeko. Kasu horretan, “zabalkundea sendotzeko ekintzak” jasotzeko atalean adierazi behar da.

**2. adibidea:** proiektu bati dagokion egoerari buruzko analisia egiteko ez baldin badago sexuaren arabera bereizitako informaziorik, neurri gisa aurreikus daiteke beharrezko datuak eskuratzeko azterketa, ikerlan, datu-base edo egoki irizitako beste zerbait egitea, eta “estatistikak egokitzea eta berariazko azterlanak egitea” atalean adieraztea.

**3. adibidea:** diru-laguntzak ematea arautzeko proiektu batean, balioespenerako kontuan hartuko diren irizpideen artean genero-ikuspegia aintzat hartzea xedatuz gero, komenigarria izango da proiektuen balioespena egin beharko dutenek berdintasun-gaiei buruzko ezaupideak dituztela bermatuko duten neurriak hartzea. Proiektatutako arau-mota dela eta, neurri horiek testuan zuzenean adierazi ezin bada, horren ordez beste neurri batzuk planteatu daitezke atal honetan (esate baterako, berdintasunaren alorreko prestakuntza ematea proiektuen balioespena egin behar dutenei, edota aholku-emaile adituen laguntza aurreikustea). Kasu horretan, “informazio-, sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak” jasotzeko atalean adierazi behar da.

**4. adibidea:** enpleguaren alorreko eskumena duen sailaren proiektu baten helburua baldin bada emakume-proporzio txikiko sektoreetan emakumeak kontratatuzko laguntzak ematea, eraginkortasun handiagoa lortzeko planteatu daiteke hezkuntzaren alorreko eskumena duen sailak arau edo programaren bat abian jartzea edo egokitzea, karrera akademiko eta profesionala hautatzeko garaian genero-estereotipoek duten eragina indargabetzeko. Kasu horretan “arauak, planak edo programak egokitzea edota abian jartzea” atalean adierazi beharko da.

### 5.5.3. laburpena. Emakumeen eta gizonen arteko desoreka desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak

- **ARAU-PROIEKTUAN EDO ADMINISTRAZIO-EGINTZAN HONELAKO NEURRI-REN BAT TXERTATU AL DA?**

... GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA SUSTATZEKO NEURRIAK:

- Emakumeen eta gizonen egoera hobeto ezagutzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna txertatzea, printzipio gisa, helburu gisa edo adierazpen gisa.
- Hizkuntzaren erabilera ez-sexista egitea edo sustatzea.
- Generoaren alorreko prestakuntza duten pertsonen eta/edo berdintasuna- ren alde diharduten erakundeen parte-hartzea sustatzea.
- Berdintasuna eduki edo irizpide gisa kontuan hartzea hautaketa-prozesue- tan, dirulaguntzetan, hitzarmenetan edo prestakuntza-jardueretan.

... EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE OREKATUA SUSTATZEKO NEURRIAK:

- Hautaketa-prozesuetako epaimahaietan.
- Sariak emateko epaimahaietan.
- Organo aholku-emaietan.
- Zuzendaritza-organoetan.

... EKINTZA POSITIBOKO NEURRIAK:

- Emakumeentzako.
- Gizonak berdintasunaren alde inplikatzeko.

... ITXURA NEUTROA IZAN ARREN, GENERO-ERAGIN POSITIBOA IZATEA AURREIKUSITAKO NEURRIAK

- Indarkeriaren biktimentzat.
- Guraso bakarreko familientzat.
- Mendeko pertsonen zainketa beren gain hartzen dutenentzat.

*jarraitzen du*

### 5.5.3. laburpena. Emakumeen eta gizonen arteko desoreka desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak

(jarraipena)

... BEREIZKERIA ANITZA PAIRATZEN DUTEN EMAKUMEEN DESABANTAILAK ARINTZEKO NEURRIAK

- Adinagatik.
- Klase sozialagatik.
- Sexu-aukeragatik.
- Ahalmen-urritasunagatik.
- Etniagatik eta/edo arrazagatik.
- Jatorrizko nazioagatik.

... DEBEKU- EDO ZIGOR-NEURRIAK:

- Sexuan oinarritutako bereizkeriagatik.
  - Hizkuntzaren eta irudien erabilera sexistagatik.
- **ARAU-PROIEKTUAREN EDO ADMINISTRAZIO-EGINTZAREN EDUKITIK HARATAGO, AURREIKUSTEN AL DA BERDINTASUNERAKO HELBURU ETA NEURRIEN ERAGINKORTASUNA OSATZEKO EDO AREAGOTZEKO NEURRIEN BAT?**
    - Zabalkundea sendotzeko ekintzak.
    - Jarraipen- eta ebaluazio-jarduerak.
    - Estatistikak egokitzea eta berariazko azterlanak egitea.
    - Informazio-, sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak.
    - Arauak, planak edo programak egokitzea edota abian jartzea.
    - Berdintasunerako planak prestatzea.
    - Egitura edo zerbitzuak sortzea.



# 6. S EKTORE-MATERIALAK



**6.1. KIROLA**

**6.2. LANDA-GARAPENA ETA NEKAZARITZA**

**6.3. HERRITARREN SEGURTASUNA**

**6.4. EKINTZAILETZA ETA ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK (ETE)**

**6.5. GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA**

**6.6. IKERKETA, GARAPEN TEKNOLOGIKOA ETA BERRIKUNTZA (I+D+I)**

**6.7. INFORMAZIOAREN GIZARTEA**







# 7. **K**ONTSULTARAKO MATERIALAK



## **7.1. ALDERDI JURIDIKOAK**

- Agindu juridiko orokorrak
- Esparru juridiko orokorra

## **7.2. OHIKO GALDERAK**

## **7.3. ADIBIDE PRAKTIKOAK**

- Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko lege-aurreproiektua
- Patataren ekoizpen integratuari buruzko Arau Tekniko berariazkoa onartzen duen agindua

## **7.4. TXANTILOIAK**

- I. eranskina txantiloia. Generoaren araberako eraginari buruzko txostena
- II. eranskina txantiloia. Generoaren ikuspuntutik garrantzirik ez izatea justifikatzen duen txostena

## **7.5. GLOSARIOA**





## 8. **E** RREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAK



## AZTERLANAK ETA TXOSTENAK

- Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak, 2011. Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea.
- Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak (2011 baino lehenagokoak). Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea.
- Emakume eta gizonen presentzia Euskadiko erabaki guneeetan. Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea.
- Euskal gizartean bizi diren atzerriko emakume etorkinei buruzko azterlana. Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea.
- La autonomía de las mujeres “mayores” en el País Vasco y su contribución a los procesos de empoderamiento. - Emakumearen Euskal Erakundea.
- EAEko nerabeak. Hurbilketa ahalduntzetik abiatuta. Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea.
- Zaintzaren ondorioak. Uztartze-estrategiak EAEko gizon-emakumeen eguneroko bizitzan. Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea.
- EAEko emakumeen lanbide ibilbide eta egoerako desberdintasuna. Emakumezkoen talentua alferrik galtzearen kostu erlatiboa. Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea.
- Berdintasunak enpresen produktibitatean eta lehiakortasunean daukan eragina. Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea.

## ESKULIBURUAK ETA GIDALIBURUAK

- Guía para la Evaluación del Impacto en Función del Género. Europako Batzordea.. 1998.
- Guía de aplicación práctica para la elaboración de informes de impacto de género de las disposiciones normativas que elabore el Gobierno de acuerdo a la Ley 30/2003. Emakumearen Institutua.

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren izaera orokorreko xedapenen genero inpaktua ebaluatzeko txostenak egiteko jarraibideak. Lankidetzako, Giza Eskubideetako eta Berdintasuneko Zuzendaritza. Gipuzkoako Foru Aldundia
- Normativa con impacto de género positivo en la igualdad. Andaluziako Emakumearen Institutua.
- Guía para identificar la pertinencia de género. Andaluziako Emakumearen Institutua.
- Guía de evaluación del impacto de género. Gaztela-Mantxako Emakumearen Institutua.
- Guía para la evaluación del impacto de género en la Comunidad Autónoma de Extremadura. Mario Salas Galán.
- Orientaciones para la aplicación de la perspectiva de género en las políticas públicas y la evaluación de impacto de género en las disposiciones normativas. Emakumearen Kanariar Institutua.
- Informes de impacto de género. Institut Catalá de les Dones.

## WEB BALIABIDEAK

- Emakunderen dokumentazio-zentroko katalogoa.
- Emakundek argitaratutako txosten eta ikerlanen zerrenda.
- Eustaten webguneko emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko atala.
- Lege-proiektuen izapideei buruzko espedienteen kontsulta Eusko Legebiltzarraren webgunean.
- Emakumearen Institutuaren argitalpenen katalogoa.
- Berdintasunari, genero-eraginari eta aurrekontuei lotutako arauen bilduma Andaluziako Juntaren webgunean.